



**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2019  
Oroitidazkia



## 2. JARDUN INSTITUZIONALA

### 2.1. Osoko bilkurak eta Zuzendaritza bilerak

### 2.2. Bestelako jarduerak

2.2.1. Euskaltzaindiaren Mendeurrena  
Jardunaldi akademikoak  
Ekitaldi instituzionalak  
Euskaltzaindiaren lehen 100 urteak  
islatzeko ekimenak

2.2.2. Liburu azokak  
Sarako Idazleen 36. Biltzarra  
Bilboko 49. Liburu Azoka  
Durangoko 54. Azoka

2.2.3. Ekitaldi instituzionalak eta bisitak  
Egoitza antolatutako ekitaldiak eta jasotako bisitak  
Ordezkaritzetan antolatutako ekitaldiak  
Donostian  
Baionan  
Bestelako ekitaldi, adierazpen eta bisitak

2.2.4. Ageriko bilkurak eta omenaldiak

### 2.3. Euskaltzainak

### 2.4. Sariak eta dominak

2.4.1. Euskaltzaindiak antolatutako sariak

2.4.2. Euskaltzaindiak jasotako sariak eta dominak

### 2.5. Ekimen artistiko-kulturalak

### 2.6. Erakusketak

### 2.7. Lankidetzaren hitzarmenak

## 3. JARDUN AKADEMIKOA

### 3.1. Iker saila

3.1.1. Hiztegiak  
Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak  
Orotariko Euskal Hiztegia  
Zientzia eta Teknika Hiztegia egitasmoa  
Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa egitasmoa  
Lexikoaren Behatokia egitasmoa

### 3.1.2. Gramatika batzordea

3.1.3. Dialektologia  
Euskararen Herri Hizkeren Atlas egitasmoa

### 3.1.4. Onomastika

Onomastika batzordea  
Exonomastika batzordea  
Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa  
Gasteizko toponimia egitasmoa

### 3.1.5. Literatura

### 3.1.6. Ahoskera

Ahoskera batzordea

### 3.2. Jagon saila

3.2.1. Corpus batzordea

3.2.2. Euskalkien lantaldea

3.2.3. Sustapen batzordea

3.2.4. Joanes Etxeberri egitasmoa

### 3.3. Egiturazko batzorde, lantalde eta egitasmoak

3.3.1. Argitalpen batzordea

3.3.2. Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea

3.3.3. Informazio eta Telekomunikazioaren Teknologia (IKT) batzordea

3.3.4. Euskara Batuaren Eskuliburua batzorde suntsikorra

3.3.5. Euskara eskuz esku egitasmoa

## 4. ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

4.1. Azkue Biblioteka eta Artxiboa zerbitzua

4.2. Onomastika zerbitzua

4.3. Argitalpen zerbitzua

4.4. Informatika zerbitzua

4.5. Komunikazioa eta Irudia zerbitzua

4.6. Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)



## 5. GIZARTERATZEA: WEBGUNEA ETA SARE SOZIALAK



## 6. BALANTZE EKONOMIKOA

# 1.

# AURKEZPENA

# 1. AURKEZPENA

Aurten ere heldu zaigu Euskaltzaindiaren oroitidazkia argitaratzeko sasoa. Eta, ohi bezala, esku artean edo, (segurutik) hobeki esanda, ordenagailuaren pantailaren aurrean duzun agiri honetan jaso ditu Akademiak iazko urtean egindakoak, bilkura arrunt eta berezien nondik norakoak, argitalpen berriak, auzoko eta urrunagoko bidaideekin izandako harremanak, euskaltzainen proiektuak...

Alabaina, 2019. urtea ez da nolana hiko urtea izan. Jakingo duzunez, Euskararen Akademiak 2018ko uztailean eratu zuen Mendeurrenaren patronatua, Bizkaiko Foru Aldundian, eta bi hilabete geroago egin zuen lehen 100 urteetako ibilbidea ospatzeko lehen jarduera akademikoa, Baionan. Mendeurrenari lotutako ekitaldi eta jarduera gehienak, ordea, 2019an gauzatu dira: zortzi jardunaldi akademiko -horietako batzuk nazioartekoa- Euskaltzaindiak jorratzen dituen hizkuntza-arlo guztiei buruzkoak; jardunaldi akademiko horien guztien hasiera-ekitaldiak; egitarau artistiko eta kultural joria, abestaldiz, antzerkiz, irakurraldiz, musikaz eta dantzaz jantzia (guztira, 90 emanaldi eskaini dira eta 9.000 gora ikusle/entzule izan dira haietan); argitalpen akademikoak (besteak beste, Euskara Batuaren Eskuliburua, EBE; Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren X. liburukia; Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko liburua; edo Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa liburua); bi erakusketak tematiko; eta Euskaltzaindiaren lehen ehun urteak islatzeko hiru produktu ekoitzi dira ('Euskaltzaindia, egunak eta lanak' dokumentala; 'Berri gogoa' liburua eta 'Euskaltzaindia, euskararen ehun urteko laguna' komikia).

Ehungarren urteurrenari lotutako kontuekin amaitzeko, bereziki aipatzeko dugu Euskaltzaindiak 2019ko urriaren 5ean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan, egin duen Mendeurrenaren amaierako ekitaldi gogoangarria, EAeko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko agintari nagusiak bertan direla, ehun urte lehenago, 1919ko urriaren 7an, hain zuzen ere, Akademiak leku horretan bertan eginiko lehen Osoko bilkuraren gomutan, bai eta, Mendeurrenaren kariatz, Euskaltzaindiaren ekimenez 2019ko urtarrilean sinatu zen 'Hizkuntza gutxiagotuen hiztunen eskubideak defendatzeko ituna', Fryske Akademy, Lo Congrès Permanent de la Lengua Occitana, Real Academia Galega, Institut d'Estudis Catalans eta EURAC-Institute for Applied Linguistics erakundeekin batera.

Inolako ezbairik gabe, urte oparoa izan da iazkoa, Obrak mintzo, munarri erabili nahi izan baitu Euskaltzaindiak mende honetan egin duen lana gizarteratu eta eginiko bidea balioesteko baina, batez ere, etorkizuneko asmoen berri eman, ildo estrategikoak jendaurrean agertu eta datozen bi hamarkadetan euskararen biziberritzeari sakada egin eta gizarte zibila euskararen eta euskal kulturaren inguruan egituratzeko, Akademiaren beraren aitzindaritzaren tarteko dela.

Nolanahi ere den, ospakizunak ospakizun, Akademiak ez du bazterrean utzi batzorde, lantalde, egitasmo eta besteren ohiko lana, eta erabakiak hartzeko batzar ugari egin, hainbat liburu argitaratu eta gogotik ahalegindu da herritarren kontsulta-eskeei erantzuten mendeurrenako egitarautik at, azken batean, Akademia herriaren zerbitzuan sortu zelako eta egun ere hiztunen zerbitzuko baitago, garaian garaiko tresnak baliatuz, hizkuntzaren aldeko lanean tinko.

Andres Urrutia, euskaltzainburua

Xabier Kintana, idazkaria

## 2. JARDUN INSTITUZIONALA

### **2. JARDUN INSTITUZIONALA**

#### **2.1. Osoko bilkurak eta Zuzendaritza bilerak**

#### **2.2. Bestelako jarduerak**

2.2.1. Euskaltzaindiaren Mendeurrena  
Jardunaldi akademikoak  
Ekitaldi instituzionalak  
Euskaltzaindiaren lehen 100 urteak  
islatzeko ekimenak

2.2.2. Liburu azokak  
Sarako Idazleen 36. Biltzarra  
Bilboko 49. Liburu Azoka  
Durangoko 54. Azoka

2.2.3. Ekitaldi instituzionalak eta bisitak  
Egoitzan antolatutako ekitaldiak eta jasotako bisitak  
Ordezkaritzetan antolatutako ekitaldiak  
Donostian  
Baionan  
Bestelako ekitaldi, adierazpen eta bisitak

2.2.4. Ageriko bilkurak eta omenaldiak

#### **2.3. Euskaltzainak**

#### **2.4. Sariak eta dominak**

2.4.1. Euskaltzaindiak antolatutako sariak

2.4.2. Euskaltzaindiak jasotako sariak eta dominak

#### **2.5. Ekimen artistiko-kulturalak**

#### **2.6. Erakusketak**

#### **2.7. Lankidetzak hitzarmenak**

## 2. JARDUN INSTITUZIONALA

### 2.1. Osoko bilkurak eta Zuzendaritza bilerak

Euskaltzaindiak Osoko bilkura egiten du hilean behin eta, hala dagokionean, Ageriko bilkura. Osoko bilkurek arau-maila ematen diete batzorde akademikoetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak Bilbon dauka egoitza nagusia eta ordezkariak ditu Baionan, Donostian, Gasteizen eta Iruñean. Osoko bilkurak eta Zuzendaritza batzordearen bilerak, arruntan, egoitzan, ordezkarietan edo bideo-hitzaldi sistemaren bidez egiten dira, nahiz eta, zenbait kasutan, erakunde edo elkarte batzuen gonbita onartzen den, eta horien egoitzetan ere bilera batzuk egiten diren.

Zuzendaritza batzordea, oro har, hamabostean behin biltzen da. Zuzendaritzako kideak ondoko hauek dira: euskaltzainburua, euskaltzainburuordea, idazkaria, diruzaina eta Iker eta Jagon sailetako buruak. Horiekin batera partaideak dira kudeatzailea eta idazkariordea, estatutuek eta barne arauak ezartzen duten moduan. Haien zeregina da Euskaltzaindiaren jardunbide ona bermatzea. Kudeatzaileak eta idazkariordeak, jorratu beharreko gaien arabera, arduradun bakoitzarekiko koordinazio-lanak bideratzen dituzte.



Uztailen, Euskaltzaindiaren egoitzan egindako osoko bilkura



Otsailean, Iruñean egindako osoko bilkura

## 2019an Osoko bilkura hauek egin dira:

**2019.01.25**

DONOSTIA, Gipuzkoako Foru Aldundia

**2019.02.22**

IRUÑEA, Nafarroako Gobernua

**2019.03.30**

ARETXABAETA, udaletxea

**2019.05.04**

TREBIÑU, udaletxea

**2019.06.28**

BAIONA, Herriko Etxea

**2019.07.19**

BILBO, egoitza

**2019.08.27**

GASTEIZ, Arabako Batzar Nagusiak

**2019.10.25**

LEIOA, UPV/EHU

**2019.11.29**

DONOSTIA, San Telmo museoa

**2019.12.20**

LEKEITIO, udaletxea



Martxoan, Aretxabaetan egindako osoko bilkura



Abenduan, Lekeition egindako osoko bilkura



Abenduan, Lekeition egindako osoko bilkura



## 2.2. Bestelako jarduerak

Osoko bilkura eta Zuzendaritza bilerez gain, Euskaltzaindiak hainbat motatako ekitaldi eta ekimen antolatu ditu 2019an.

### 2.2.1. Euskaltzaindiaren Mendeurrena

Euskaltzaindiak Mendeurrena ospatu du 2018ko iraila eta 2019ko urria bitartean. Mendeurrenaren egitarauan, 5 jardueramota gauzatu dira: jarduera akademikoak (jardunaldiak, argitalpenak, erakusketa tematikoak), instituzionalak, artistiko-kulturalak, Euskaltzaindiaren lehen 100 urteak islatzeko ekimenak eta beste izaera batzuetako ekimenak.

Egitasmoen bateragilearen lan nagusia izan da, Zuzendaritzaren koordinaziopean, Mendeurrenaren antolakuntza eta kudeaketa arloa aurrera eramatea. Egitarauari buruzko informazio gehiago [hemen](#).

### Mendeurrenari lotutako jardunaldi akademikoak

- 2018ko irailetik 2019ko irailera egin dira; guztira, 10 (2019an, 8).
- Jardunaldi horietan aztergai izan dira euskara batua, hizkuntza gutxiagotuen jagotea, ahoskera, dialektologia, literatura, onomastika, hiztegi historiko-etimologikoa, gramatika eta ingurune digitala eta hizkuntzen estandarizazioa.
- Jardunaldi akademikoetan, 170 hizlari, 75 aurkezle-moderatzaile eta 1.100 parte-hartzaile izan dira.
- Jardunaldiak euskararen lurralde guztietan egin dira.
- Jardunaldi horietako batzuek nazioarteko izaera izan dute.
- Jardunaldiak Euskaltzaindiaren jardun-eremu eta aztergai guztiei buruzkoak izan dira.
- Jardunaldi horietan, Euskaltzaindiaren batzorde, lantalde eta egitasmo guztien parte-hartzea izan da.
- Jardunaldi bakoitzak bere argitalpena izango du.

Jardunaldi akademiko guztiei buruzko informazio guztia [hemen](#) kontsulta daiteke eta hitzaldi guztiak, berriz, Euskaltzaindiaren [YouTubeko kanalean](#) ikus daitezke. Hala ere, Oroitidazkiaren 3. atalean jardunaldiei buruzko informazio gehiago emango da.

Irailean, Donostian, hizkuntzen estandarizazioa eta ingurune digitalari buruz egindako jardunaldi akademikoa



Martxoan, Bilbon, dialektologiari buruz egindako jardunaldi akademikoa





Urtarrilean, Iruñean, hizkuntza gutxiagotutako jakotari buruz egindako jardunaldi akademikoaren hasiera ekitaldia



Urtarrilean, Iruñean, hizkuntza gutxiagotutako jakotari buruz egindako jardunaldi akademikoaren hasiera ekitaldia



Martxoan, Bilbon, dialektologiari buruz egindako jardunaldi akademikoaren hasiera ekitaldia

## Ekitaldi instituzionalak

Euskaltzaindiaren lehen bilkura 1919ko urriaren 7an egin zen, Donostian, Gipuzkoako foru jauregian. Bilera horren gomutan, Mendeurrenaren amaiera-ekitaldia leku berean egin da, 2019ko urriaren 5ean. Informazio gehiago [hemen](#).

Amaiera ekitaldiaz gain, Euskaltzaindiak beste zortzi ekitaldi instituzional egin ditu 2019an, Mendeurrenaren baitan: jardunaldi akademiko bakoitzaren hasiera-ekitaldiak, hain zuzen ere.



Mendeurrenaren amaiera ekitaldia urrian, Donostian



Irailan, Donostian, hizkuntzen estandarizazioa eta ingurune digitalari buruz egindako jardunaldi akademikoaren hasiera ekitaldia



dunaldiaren akademikoaren



Martxoan, Bilbon, dialektologiari buruz egindako jardunaldi akademikoaren hasiera ekitaldia



Mendeurrenaren amaiera ekitaldia urrian, Donostian



Mendeurrenaren amaiera ekitaldia urrian, Donostian



Mendeurrenaren amaiera ekitaldia urrian, Donostian



Mendeurrenaren amaiera ekitaldia urrian, Donostian

## Euskaltzaindiaren lehen 100 urteak islatzeko ekimenak

Hiru ekimen egin dira 2019an:

*-Euskaltzaindia: egunak eta lanak* dokumentala. Dokumentalaren bertsio luzea eta bertsio laburra ekoitzi dira; gainera, bertsio laburra gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez azpigitulatu da. Bernardo Atxagak sortu du dokumentalaren gidoia eta Fermin Etxegoienek zuzendu.

*-Berri gogoa liburua* Euskaltzaindiaren lehen mendeari buruzko liburua ondu du Juan Luis Zabala idazleak.

*-Euskaltzaindia, euskararen ehun urteko laguna* komikia Euskaltzaindiaren lehen mendeari buruzko komikia egin dute Amaia Ballesteros marrazkilaria eta Juan Luis Zabala idazleak.

Dokumentala iragartzeko kartela



Berri gogoa liburuaren azala



EUSKALTZAINDIA, Euskararen ehun urteko laguna komikia



Euskaltzaindia: egunak eta lanak dokumentalaren aurkezpena



Euskaltzaindia, euskararen 100 urteko laguna komikiaren aurkezpena

## 2.2.2. Liburu azokak

### Sarako Idazleen Biltzarra

Apirilaren 22an, Sarako Idazleen Biltzarraren 36. edizioa izan da. Euskaltzaindia urtero joaten da Sarara, eta hor Akademiaren azken argitalpenak erakusten ditu.

2019an, Euskaltzaindiak hiru liburu hauek aurkeztu ditu Saran: *Janpierra Lexardoarteren bizitzea edo Basabürüaren trajeria* (Jakes Sarraillet), *Le dauphin: 1757ko gutuneriari buruzko osagarriak eta gogoetak, "othoi çato etçhera"* (Xabier Elozegi) eta *Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria (1964-2018) Kolokioaren agiriak* (Jean-Baptiste Coyos).

Bestalde, Sarako hitzorduaren 36. edizioan, Jean Haritschelhar omendu du Euskaltzaindiak eta Bernardo Atxagak mintzaldia eman du Luzien Etxezaharretak lagunduta.



Euskaltzaindiaren azken argitalpenen aurkezpena Sarako Idazleen Biltzarrean

### Bilboko Liburu Azoka

Euskaltzaindiak Bilboko 49. Liburu Azokan parte hartu du eta Akademiaren saltokian bere azken argitalpenak egon dira ikusgai. 2019an, emakumezkoen lanak ikusarazteko ahalegin berezia egin du Euskadiko Liburu Ganberak.



Euskaltzaindiaren saltokia Bilboko Liburu Azokan

### Durangoko Azoka

Euskaltzaindia 54. Durangoko Azokan izan da eta, besteak beste, honako lan hauek eraman ditu bertara: *Berri gogoa* liburua, *Euskara Batuaren Eskuliburuaren* (EBE) 3. edizio berritua, zentsura jorratzen duen *Euskera* agerkariaren 63 (2-2) zenbakia, *Erlea 12*, *Euskaltzaindia*, *euskararen 100 urteko laguna* komikia, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* (EHHE-200), Azkue Literatura sarietako irabazleen ipuin eta olerkiak biltzen dituen liburua.



Euskaltzaindiaren saltokia Durangoko Azokan

### 2.2.3. Ekitaldi instituzionalak eta bisitak

#### Egoitzan antolatutako ekitaldiak eta jasotako bisitak

Euskaltzaindiak hainbat ekitaldi antolatu eta bisita jaso ohi ditu bere egoitzan.

Euskaltzaindiak antolatutako ekitaldiez gain, 2019an ondoko erakundeek ere baliatu dute Euskaltzaindiaren egoitza hainbat jardura egiteko (ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak, aurkezpenak...):

- Urtarrilak 8, 15, 22 eta 29: Tradiziozko kantu ikastaroa, AIKO taldea.
- Urtarrilak 11: Euskal Herriko Atlas Geo Poetikoa ekitaldia (musika), ZÜEK HEBEN.
- Urtarrilak 25: Gonzalo Perez Trascasa & Coletivo Yesca (ikastaroa), AIKO taldea.
- Otsailak 5: Tradiziozko kantu ikastaroa, AIKO taldea.
- Otsailak 13: "Hiru emazte, gizon mundu batean" Itxaro Borda eta "Otto Pette Irudimen orojalea" Juan Garzia (hitzaldiak) Bilbo Zaharra Forum.

- Otsailak 14: "Otto Pette tresna kutxa" Danele Sarriugarte "eta "Otto Pette Trumpen garaietan" Juanjo Olasagarre (hitzaldiak), Bilbo Zaharra Forum.
- Otsailak 19 eta 26:, eta martxoak 22 eta 26: Tradiziozko kantu ikastaroa, AIKO taldea.
- Martxoak 28: Bilboko Elizbarrutiaren eta Euskaltzaindiaren aitortpena Liturgiako euskaratzaileen ekarriari.
- Apirilak 2, 9 eta 30: Tradiziozko kantu ikastaroa, AIKO taldea.
- Maiatzak 8: Koldo Mitxelena sarien banaketa, Euskaltzaindia eta UPV/EHU.
- Maiatzak 7, 14, 21 eta 28: Tradiziozko kantu ikastaroa, AIKO taldea.
- Ekainak 3: "Otto Pette ene bihotzabegietan" Pako Aristi eta "Metafora zen erresuma haren izena" Jon Alonso (hitzaldiak), Bilbo Zaharra Forum.
- Ekainak 4: "Otto Petteren irakurketa gaurkotua" Tere Irastorza eta "Zitadabat" Garbiñe Ubeda (hitzaldiak), Bilbo Zaharra Forum.
- Ekainak 5: Bilbao Bizkaia Harro programaren aurkezpena (prentsurrekoa), Ortzadar LGBT Elkarte.
- Ekainak 5: "Otto Pette: hilean bizian bezala" (hitzaldia), Bilbo Zaharra Forum.

Martxoan, liturgiako euskaratzaileei ekarpena



- Ekainak 6: Ibilaldiaren balantzea eta datorren urterako lekukoa pasatzeaz (prentsaurrekoa), Ikastolen elkarte.
  - Ekainak 11 eta 18: Tradiziozko kantu ikastaroa, AIKO taldea.
  - Ekainak 20: "Humanitate digitalak: aukerak, erakundeen rol berriak eta elkarlana" (ikastaroa), UEU.
  - Ekainak 28: (jardunaldia), Mendebalde elkarte.
  - Irailak 26: Euskara Batuaren Eskuliburua ondo erabiltzeko saioa, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarte (EIZIE).
  - Ekainak 27: ONCEREkin batera aurkezpena eta Miriam Urkiaren hitzaldia, Ortzadar LGBT elkarte.
  - Urriak 8 eta 15: Tradiziozko kantu ikastaroa, AIKO taldea.
  - Urriak 15: "Asialdiaren hondarra toponimian: dantzalekutik bolatokira" (hitzaldia), Ondarearen Europako Jardunaldiak, BFA.
  - Urriak 18: "Araba Lore Emakume Espioiak" (hitzaldia) Mendebalde elkarte.
  - Urriak 19: AHAL DUGU-Podemosen Euskara Planaren aurkezpena.
  - Urriak 22 eta 23: "Jokoak eta kirolak herri hizkeretan" (hitzaldia), Ondarearen Europako Jardunaldiak, BFA.
  - Urriak 22 eta 29: Tradiziozko kantu ikastaroa, AIKO taldea.
  - Azaroak 5, 12 eta 26: Tradiziozko kantu ikastaroa, AIKO taldea.
  - Azaroak 20: Bernardo Atxagaren *Etxeak eta hilobiak* liburuaren aurkezpena eta hitzaldia (hitzaldia), Bilbo Zaharra Forum.
  - Azaroak 21: "Oxigenoa euskarari 6000 metroan ere" dokumentalaren emanaldia, Felipe Uriarte.
  - Azaroak 26: NORI komikiaren aurkezpena, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte.
  - Abenduak 3 eta 10: Tradiziozko kantu ikastaroa, AIKO taldea.
  - Abenduak 12: Bego Alabazan ipuin kontalaria, Bilbo Zaharra euskaltegia.
- 2019an, beraz, 50 ekitaldi inguru antolatuta dira Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan eta horietara 2.300 lagun inguru bertaratu dira.
- Bisitei dagokionez, honako hauek jaso dira 2019an:
- Urtarrilaren 15ean, Leidengo Unibertsitateko kideek Euskaltzaindia bisitatu dute.
  - AEK-k 21. Korrika aurkeztu dio Euskaltzaindiari otsailaren 5ean. Informazio gehiago [hemen](#).
  - Pedro Sánchez Espainiako gobernuburuak Euskaltzaindiaren Bilboko egoitza bisitatu du martxoaren 6an. Informazio gehiago [hemen](#).
  - Galesko Parlamentuko ordezkariak Euskaltzaindiaren Bilboko egoitza bisitatu dute, martxoaren 28an. Informazio gehiago [hemen](#).
  - Maiatzaren 2an, Zuricheko Unibertsitateko kideen bisita izan da.
  - Uztailaren 17an, Wisconsin-Green Bay Unibertsitatearen talde bisita izan da.
  - Urriaren 3an, Suitzako International Lyceum Club Berneko kideak hartu dira.
  - Urriaren 4an, Garabide Elkartearen eskutik munduko hainbat hizkuntza gutxiagotutako ordezkariak etorri dira.
  - Euskaltzaindiaren berri jakin nahi izan du Jorge E. Lemus El Salvadorko irakasleak. Informazio gehiago [hemen](#).
- Bisita horiez gain, beste elkarte, ikastetxe, euskaltegi eta erakunde batzuk ere bisitatu dute Euskaltzaindia: Azkue Biblioteka eta Artxiboak artatzen ditu talde-bisita horiek.

Martxoan, Pedro Sanchez Espainiako gobernuburuaren bisita



## Ordezkaritzetan antolatutako ekitaldiak

### Donostian

Euskaltzaindiak Donostian eskaintzen dituen zerbitzuen artean, bertako aretoen erabilerarena oso garrantzitsua da. Euskalgintzako eta euskal kulturgintzako eragileek Luis Villasante Ikergunearen aretoak erabili ohi dituzte eta urtetik urtera handituz doaz bertan egiten diren ikastaro, bilera eta bestelakoen kopurua. Hona hemen Ikergunean zehatz-mehatz 2019an antolatutakoak:

- Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkideek Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzak antolatutako mintegietan parte hartu dute urtarrilaren 30ean, otsailaren 13an, martxoaren 1ean eta apirilaren 10ean.

- [Linguatéc](#) egitasmoaren bilera egin da otsailaren 20an.

- EIZIEk *Aposizioak noiz eta nola* ikastaroa antolatu du apirilaren 9an, 10ean eta 11n. 15 lagun.

- Soziolinguistika Klusterrak antolaturiko mintegia: apirilaren 12an.

- Euskaltzaindiak, *La Vasconia peninsular en las fuentes árabes (años 711 – 929)* aurkeztu du, apirilaren 15ean.

- IkasElkarrek antolaturiko aurkezpen ekitaldia: maiatzaren 8an.

- Elhuyarrek mintegiak antolatu ditu ekainaren 6an, 7an, 10ean, 17an, eta 18an, uztailaren 4an eta irailaren 13 eta 24an.

- EIZIEk *Administrazioko testugintzaren lantegia* ikastaroa antolatu du ekainaren 18an eta 25ean.

- Donostia Kulturak uztailaren 17an, *Hizkuntza txikitu baten arrakasta* egitasmoaren aurkezpena antolatu du (It suksesferhaal fan in minderheidstaal, 2018).

- IkasElkarrek antolaturiko mintegiak: irailaren 12 eta 17an.

- Euskaltzaindiak eta EIZIEk Euskara Batuaren Eskuliburua ondo erabiltzeko saioa antolatu dute, irailaren 24an.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzak Gipuzkoako udaletako euskara teknikarientzat antolatutako bi mintegi: urriaren 31n eta azaroaren 7an.

- Mintzolak eta Mikel Laboa Katedrak antolatutako *Ahostegunak* egitasmoa: urriaren 31n eta azaroaren 7an, 14an, 21ean eta 28an.

- EIZIEk Wordfast itzulpen programari buruzko ikastaroa antolatu du azaroaren 12an eta 19an.

- UEUk eta Ekonomialarien Euskal Elkargoak antolatutako *Ekonomialari Euskaldunen I. Biltzarra. Historiatik etorkizunera*, azaroaren 14an.

- Alberdaniak, *Susmaezinak* liburuaren harira, Itxaro Borda idazlearekin solasaldi irekia antolatu du azaroaren 20an.

- Euskaltzaindiak, *Euskera 2018, 2-2 (ikerketa zenbakia: Joan Mari Torrealdairi omenaldia: Literatura eta Zentsura. Memoria eztabaidatuak* alea aurkeztu du azaroaren 27an.

- IkasElkarrek antolaturiko mintegiak: abenduaren 12an eta 13an.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bilera antolatu dute Euskaraldiaren prestaketarako, abenduaren 16an.

2019an, beraz, 40 ekitaldi inguru antolatu dira Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkaritzan eta horietara 850 lagun inguru bertaratu dira.





## Baionan

Baionako ordezkarietatik honako hauek antolatu dira 2019an:

- Maiatzaren 11n, Herri Urrats bestan parte hartu du Euskaltzaindiak.
- Maiatzaren 27-28-29an izan den Ikerlari Kongresuaren sarrera ekitaldian izan da Euskaltzaindia.
- Irailaren 12an, Baionako ordezkarietan Deialarra Elkartearen prentsaurrekoa egin da Xalbador Eguna aurkezteko.

## Bestelako ekitaldi, adierazpen eta bisitak

- Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak [adierazpena](#) egin du urriaren 31n, Nafarroako herritarren hizkuntza eskubideen bermeaz.
- Euskaltzaindia María Chivite Nafarroako lehendakariarekin bildu da eta bere egitasmoak azaldu dizkio. Informazio gehiago [hemen](#).



Urriaren 31n, Baionan, Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoaren aurkezpena



Abenduan, María Chivite Nafarroako lehendakariarekin bilera



### Euskaltzaindiaren zuzendaritzaren adierazpena, Nafarroako herritarren hizkuntza eskubideen bermeaz

2019-10-31

Adierazpena gaitzeraz [hemen](#)

Orain dela ehun urte, besteren artean, Nafarroako Foru Diputazioaren babespean sortu eta 1976az geroztik erregu dekretu bidez onartu zen Euskararen Akademia hori esleitu zitzaion, berezko kodeen artean, hizkuntza eskubideak zaintzea eta euskararen erabilera sustatzea.

Horiekin, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko erakundeetan, euskararen erabilera arautzen duen azararen 15eko 103/2017 Foru Dekretuari egindako helegitea ebatziz, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako 216/2019 epia dela eta, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak hauek adierazi emari nahi du:

1. Euskara Nafarroako berezko ondarea da eta, hortaz, nafar gertsei eta bakoitzari dagokione euskarari buruzko hizkuntza eskubideak.
2. Alapuzako epai horrek, alde baterik, ez du aintzat hartzen bertako hizkuntza den euskara baliotzea Nafarroako eremu guzietako administrazioetako lanpostuetan. Eta, beste aldetik, ez du ahalbidetzen, normaltasunez, Foru Komunitateko ondare kulturala den euskara, gaitzeriarekin batera, agerrarautzea ere idazki, inprimaki, errotulu, zigilu, xafia eta abarretan. Epaiak hizkuntza eskubideak herritarrenak direla argi aitortu arren, epai horren erabakiekin nafar gertsei hizkuntza eskubideak bermatu eta babestu beharren, murriztu eta mugatu egiten ditu, eta atzerapauso nabaria ezartzen nafarrei aitortutako hizkuntza eskubideak gauzatzeko.
3. Orobat, Euskaltzaindiak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari euskarari dagokion lege eta arau guztietan berme ditzaile hitzuz komunitate osoaren eta nafar bakoitzaren hizkuntza eskubideak eta, euskara gaitzerari erakunde aholku emalari ofizial den Akademia honetako Zuzendaritzak, adierazpen honen bidez, egiteko horietan lanikidetzaz hertsia eskaintzen dio Nafarroako Gobernuari.

## 2.2.4. Ageriko bilkurak eta omenaldiak

- Urtarrilaren 25eko Ageriko bilkuran, Euskaltzaindiak [Junes Casenave](#), [Manex Pagola](#) eta [Xalbador Garmendia](#) omendu ditu.

- Martxoaren 2an, Senpereko herriak eta Euskaltzaindiak [Henri Duhau](#) eta [Auxtin Zamora](#) ohorezko euskaltzainak omendu ditu.

- Martxoaren 28an, Euskaltzaindiak [liturgiako testuen euskaratzaileak](#) omendu ditu.

- Martxoaren 30ean, Miriam Urkia euskaltzain osoak [sarrera hitzaldia](#) irakurri du.

- Maitzaren 4an, Roberto Gonzalez de Viñaspre euskaltzain osoak [sarrera hitzaldia](#) irakurri du.

- Urriaren 1ean, Euskal Herriak [euskal diasporari](#) egiten dion gorazarrearen erakusgarri, Euskal Gizataldeen VII. Mundu Biltzarrean parte hartu dute ordezkariak Euskaltzaindiaren egoitzan.

- Urriaren 13an, Santa Garazin Sū Azia Elkarrekin Junes Casenaveri omenaldia egin dio eta bertan parte hartu du Euskaltzaindiak.

- Urriaren 15ean, Bankan, M. J. Minaberri izena hartu duen eskolaren [estreinan](#) izan da Euskaltzaindia.

- Abenduaren 20an, Euskaltzaindiak [Resurreccion Maria Azkue](#) omendu du.



Martxoan, Miriam Urkia euskaltzain osoaren sarrera hitzaldia



Maitzean, Roberto Gonzalez de Viñaspre euskaltzain osoaren sarrera hitzaldia



Urrian, egoitzan euskal diasporari egindako omenaldia

## 2.3. Euskaltzainak

2019an, honako euskaltzain hauek hil dira:

### - Jon Lopategi Lauzirika

ohorezko euskaltzaina (1934-2019). Muxikako Ariatza auzoko Aldauri baserrian jaio zen Lopategi bertsolaria. Hamabi urterekin sakramentinoetan sarturik, hogeita birekin utzi zion fraide izateko asmoari. 1960an hasi zen Bizkaiko bertsolari-txapelketetan parte hartzen: 1962tik 1987ra bitarteko laurak irabazi zituen. Euskal Herriko sei final jokatu zituen: 1982 eta 1986an txapeldunorde izan zen, eta 1989an txapeldun. 1965etik 1990era bitartean, bat-bateko bertso gintzaren eredu nagusietako bat izan zen Euskal Herri osoan. 80ko hamarkadaren bigarren erditik erretiratu zen arte, eragilerik garrantzitsuena eta emankorra izan zen Bizkaiko eskolak eta gazteen bertso-eskolak sustatzen.

### - Txomin Solabarrieta

**Etxaburu** ohorezko euskaltzaina (1927-2019). Ondarroako semea; apaiza; euskaltzalea, kantu eta musikazalea. Ondarroako arrantzale-familiakoa zen Solabarrieta, halako giroan hazia eta bizia, batez ere haurtzaroan; horrek arrastoa utzi zion bizitza osoan.

### - Alan Roy King

euskaltzain urgazlea, Lytham St Annes-en jaio zen (Ingalaterra, Erresuma Batua), 1954ko urriaren 24an, eta Hizkuntzalaritzan doktorea zen (Londresko Unibertsitatea). Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeko kidea izan zen 1985etik, eta Akademiak urgazle izendatu zuen 2003ko urtarrilaren 31n. Bere idazlanen artean daude Atalase maila (1988), The Basque language (1994) eta Colloquial Basque (1996).

### - Angel Aintziburu

ohorezko euskaltzaina Luzaiden jaio zen, Nafarroan, 1930eko uztailaren 3an. Bere jaioterriaren inguruan idatzi zuen, kazetari jardunaz gain. Euskaltzaindiak 2014an izendatu zuen ohorezko euskaltzain, euskararen mesedetan egindako lanagatik. Aintziburuk 2002. urtean aurkeztu zuen Luzaideren inguruko lehen liburua, Luzaiden gaindi (Elkar), Jean-Baptiste Etxarrenekin batera, eta 2009an bakarrik argitaratu zuen gai berari buruzko beste lan bat, Luzaiden gaindi II (Elkar). Lan horietan, Nafarroako udalerrri horren historia aztertu zuten egileek, bertako ohitura, bizilagun eta biztanle ezagunen inguruan idatzi zutela (tartean, Juan Etxamendi Bordel bertsolariari buruz).

### Euskaltzainak zenbakitan 2019-12-31

	GUZTIRA
Osoak	29*
Ohorezkoak	44
Urgazleak	147
GUZTIRA	220

\* Euskaltzain osoen artean, 5 emerituak dira.

## 2.4. Sariak eta dominak

### 2.4.1. Euskaltzaindiak antolatutako sariak

- Apirilaren 11n banatu dira 2018ko Resurreccion Maria Azkue Literatura Sariak.

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak 1991. urtetik antolatzen dituzte haur eta gazteentzako literatura sari hauek. Bi kategoriatan banatuta daude: A kategoria, 11 eta 14 urte bitarteko ikasleentzat, eta B kategoria, 15 eta 18 urte bitartekoentzat. Kategoria bakoitzean, bi literatura-genero saritzen dira: narrazioa eta olerkia. – A kategorian, Oihane Retegi -narrazioan- eta Haitz Aranburu-poesian-gailendu dira; B kategorian (15 eta 18 urte bitartekoak) Maddi Aiestaran beasaindarra.

- Maiatzaren 8an banatu dira Euskarazko Tesien VI. Koldo Mitxelena Sariak.

Koldo Mitxelena Sariak 2008tik antolatzen dute elkarlanean Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eta Euskaltzaindiaren Iker Sailak. 2018ko sarituak hauek izan dira: Asier López (Zientziak); Olatz Pérez de Viñaspre (Ingeniaritza eta Arkitektura); Mikele Macho (Osasun Zientziak); Juan Mari Aguirreureta (Gizarte eta Lege Zientziak); eta Miren Ibarluzea (Artea eta Giza Zientziak).



Apirilean banatutako Azkue Literatura Sarien irabazleak



Maiatzean banatutako Koldo Mitxelena Sarien irabazleak

## 2.4.2. Euskaltzaindiak jasotako sariak eta dominak

- Urtarrilaren 25ean, [Merezimenduzko Argia saria](#) jaso du Euskaltzaindiak.
- Maiatzaren 19an, Euskaltzaindiak Ibilbidearen [Elkar saria](#) jaso du.
- Urriaren 25ean, UPV/EHUko [Urrezko Domina](#) eman dio Euskaltzaindiari.
- Azaroaren 22an, Bilboko Koral Elkarateak [ohorezko bazkide](#) izendatu du Euskaltzaindia.
- Abenduaren 2an, [Nafarroako Parlamentuaren Domina](#) jaso du Euskaltzaindiak. [Bideo honetan](#) ikus daiteke ekitaldia.
- Abenduaren 3an, [Mariscal Pedro de Navarra saria](#) jaso du Euskaltzaindiak.



Urtarrilean, Argia Saria jasotzeko ekitaldia



Maiatzean, Elkar Saria jasotzeko ekitaldia



Urriari, UPV/EHUko Urrezko Domina jasotzeko ekitaldia

Azaroan, Bilboko Koral Elkarateak Euskaltzaindia ohorezko bazkide izendatu zuen



Abenduaren 2an, Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuaren Domina jaso zuen



## 2.5. Ekimen artistiko-kulturalak

2019an, Mendeurrenaren egitarauaren baitan honako ekitaldi hauek egin dira:

[- *Mende berria kantuz* izeneko koru emanaldiak, Bilboko Korral Elkartearekin elkarlanean. Guztira bost egin dira: Iruñean, Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Baionan.]

[- *Ghero* izeneko antzerki emanaldiak, Tartean Teatroarekin elkarlanean. Guztira, berrogeita sei emanaldi egin dira, Euskal Herriko herrietan barrena.]

[- *Hitzaldia euskal literatura zaharrari buruz Martuteneko kartzelan* izeneko irakurraldi dramatizatuak, Bernardo Atxaga eta Joxe Kruz Gurrutxagaren eskutik. Guztira, 13 herritan egin dira emanaldiak.]

[- *BizHitza* izeneko dantza emanaldiak egin dira, Aukeran dantza konpainiarekin elkarlanean. Guztira, 6 emanaldi egin dira.]

[- *Lautan Hiru* izeneko antzerki festibala egin da Bira, Cafe Bar Bilbao eta 7Katu Gaztetxearekin elkarlanean. Guztira, 12 emanaldi izan dira.]

[- *Astelehen buruzuriak* izeneko musika emanaldiak egin dira Bilboko egoitzan. Informazio gehiago [hemen](#).]

[- Mendeurrenako *erromeria* egin da Bilboko Plaza Barrian, irailaren 21ean, AIKO taldearekin elkarlanean.]

Guztira, ekimen artistiko-kulturalen 90 emanaldi antolatu dira eta 9.150 ikus-entzule/parte-hartzaile bertaratu dira. Ekimen artistiko-kulturei buruzko informazio guztia [hemen](#) kontsulta daiteke.

[...] [Kako artean daudenak Mendeurrenari lotutako ekimenak dira](#)

BizHitza dantza ikuskizuna



Hitzaldia euskal literatura zaharrari buruz Martuteneko kartzelan irakurraldi dramatizatuak



Mende berria kantuz koru emanaldia



Lautan Hiru antzerki festibala



Ghero antzerki emanaldia

## 2.6. Erakusketak

Mendeurrenaren egitarauaren baitan, bi erakusketa prestatu eta Euskal Herriko hainbat herritan jarri dira:

[*- Baiona: 1964, euskara batuaren zedarria erakusketa, Maulen eta Hazparnen.*]

[*- Euskara Ibiltaria erakusketa berritua, Bilbon, Bermeon eta Donostian.*]

[...] *Kako artean daudenak Mendeurrenari lotutako ekimenak dira*

Euskara ibiltaria erakusketa berritua



Baiona, 1964: euskara batuaren zedarria erakusketa



Baiona, 1964: euskara batuaren zedarria erakusketa



Euskara ibiltaria erakusketa berritua



Baiona, 1964: euskara batuaren zedarria erakusketa



Euskara ibiltaria erakusketa berritua



## 2.7. Lankidetza hitzarmenak

2019an, hitzarmen berri hauek sinatu dira:

- Hizkuntza gutxiagotuen hiztunen eskubideak defendatzeko ituna. Fryske Akademy, Lo Congrès Permanent de la Lengua Occitana, Real Academia Galega, Institut d'Estudis Catalans eta EURAC - Institute for Applied Linguistics erakundeekin sinatu da itun hori 2019ko urtarrilaren 18an.

- Maiatzaren 28an, [Bikoiztaile Euskaldunen Elkartearekin](#).

- Uztailaren 19an, [Euskal Idazleen Elkartearekin](#).

Hizkuntza gutxiagotuen hiztunen eskubideak defendatzeko ituna



Lankidetza hitzarmena Euskararen Erakunde Publikoarekin



Lankidetza hitzarmena Bikoiztaile Euskaldunen Elkartearekin



Lankidetza hitzarmena Nafarroako Parlamentuarekin



Lankidetza hitzarmena Euskal Idazleen Elkartearekin





Euskaltzaindiak elkarlanean dihardu euskalgintza arloan lan egiten ari diren eta euskararekiko atxikimendua adierazi duten hainbat herri erakunde, akademia, komunikabide, elkarte, erakunde eta fundazioekin. Informazio gehiago [hemen](#).

## Herri erakundeak

- Eusko Legebiltzarra
- Nafarroako Parlamentua
- Espainiako Gobernua
- Eusko Jaurlaritza
- Nafarroako Gobernua
- Euskal Hirigune Elkargoa
- Euskararen Erakunde Publikoa
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Euskadiko Udalen Elkarteak
- Baionako Udala
- Bilboko Udala
- Iruñeko Udala
- Vitoria-Gasteizko Udala
- EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarteak

## Hizkuntza akademiak

- Fryske Akademy (Frisiar Akademia)
- Hebrear Hizkuntzaren Akademia (Ha'academia Lalashón Ha'ivrit)
- Institut d'Estudis Catalans - Secció Filològica
- Lo Congrès Permanent de la Lengua Occitana
- Real Academia Española
- Real Academia Galega

## Komunikabideak

- Argia aldizkaria
- Berria egunkaria
- Bizkaia Irratia
- Deia egunkaria
- EITB - Euskal Irrati Telebista
- EKT - Euskarazko Komunikazio Taldea
- El Correo egunkaria
- El Diario Vasco egunkaria
- Euskalerrria Irratia
- Herria astekaria
- Iparragirre argitaletxea
- Jakin aldizkaria
- Karmel aldizkaria
- Noticias de Gipuzkoa egunkaria

## Elkarteak, erakundeak eta fundazioak

- AEK - Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea
- Arantzazuko Frantziskotarrak
- Azkue Fundazioa
- Baionako Euskal Museoa
- Baionako Mediateka
- Bergarako Irigoyen Patronatua
- Bikoiztaile Euskaldunen Elkarteak
- Bilbo Zaharra euskaltegia
- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiak
- Bizkaisida
- Cervantes Institutua
- EIZIE - Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak
- Elhuyar Fundazioa
- Elkar Fundazioa
- Etxepare Institutua
- EURAC - Institute for Applied Linguistics
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak
- Euskal Herriko Ikastolak
- Euskal Idazleen Elkarteak
- Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra
- Euskal Kultur Erakundeak
- Euskaltel
- Euskaltzaleen Topagunea
- Eusko Ikaskuntza
- Gabriel Aresti Kultur Elkarteak
- HABE - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak
- HAEE-IVAP - Herri Ardularitza Euskal Erakundeak
- Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua
- Institut Géographique National (IGN)
- Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoaren Euskal Herriko Lurralde-Dekanotza
- Jakin Aldizkaria eta Jakin Fundazioak
- Labayru Institutua
- Laneki - Lanbide Heziketan euskara sustatzeko elkarteak
- Langune Hizkuntza Industrien Elkarteak

- Mendebalde Kultura Elkarteak
- Mintzola Fundazioak
- Olaso Dorrea Sorrerakundea
- ONCE (Espainiako Itsuen Erakundeak)
- Ortzadar LGBT
- Ramón Rubial Fundazioak
- Renfe-FEVE
- Sabino Arana Fundazioak
- Soziolinguistika Klusterrak
- Udako Euskal Unibertsitateak
- Unesco Etxea
- UZEI - Terminologia eta Lexikografia Zentroak
- Xiberoko Alkargoak

## Unibertsitateak

- Euskal Herriko Unibertsitateak
- Nafarroako Unibertsitate Publikoak
- Errioxako Unibertsitateak
- Deustuko Unibertsitateak
- Mondragon Unibertsitateak

## Banku fundazioak

- Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioak
- Laboral Kutxa
- Kutxa Banku Fundazioak
- Caja Vital Kutxa Banku Fundazioak
- Crédit Agricole

Euskaltzaindiak bere Mendeurrenean elkarlanean jardun du hainbat eragilerekin:

### Mendeurreneko lankidetzahitzarmenak

- Amaia Ballesteros/Juan Luis Zabala.
- Aukeran dantza konpainia.
- Berria egunkaria.
- Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa.
- Bilboko Koral Elkartea.
- Bizkaia Irratia.
- Cadena Ser Euskadi.
- Cadena Ser Navarra.
- Digitalak-Haratago.
- EITB taldea.
- El Correo egunkaria.
- El Diario Vasco egunkaria.
- Elkar Fundazioa.
- Eroski Fundazioa.
- Euskal Irratiak.
- Euskalerrria Irratia.
- Gara egunkaria.
- Herria astekaria.
- Ikastolen Elkartea.
- Kutxa Banku Fundazioa.
- Laboral Kutxa.
- Noticias Taldea.
- Radio Nervión.
- Tartean.
- TeleBilbao.
- Tokikom elkartea.
- Ulma Fundazioa.

### Mendeurreneko babesle ekonomikoak

- Eusko Jaurlaritza.
- Nafarroako Gobernua.
- Euskal Hirigune Elkargoa.
- Euskararen Erakunde Publikoa.
- Arabako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Baionako Udala.
- Donostiako Udala.
- Bilboko Udala.
- Vitoria-Gasteizko Udala.
- Iruñeko Udala.
- Espainiako Gobernua.
- Laboral Kutxa.
- Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Kutxa Fundazioa.
- Crédit Agricole.
- EITB.
- Eroski Fundazioa.
- ULMA Fundazioa.
- Elkar Fundazioa.

# 3.

## JARDUN AKADEMIKOA

### **3. JARDUN AKADEMIKOA**

#### **3.1. Iker saila**

##### 3.1.1. Hiztegitza

Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak  
Orotariko Euskal Hiztegia  
Zientzia eta Teknika Hiztegia egitasmoa  
Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa egitasmoa  
Lexikoaren Behatokia egitasmoa

##### 3.1.2. Gramatika batzordea

##### 3.1.3. Dialektologia

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa

##### 3.1.4. Onomastika

Onomastika batzordea  
Exonomastika batzordea  
Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa  
Gasteizko toponimia egitasmoa

##### 3.1.5. Literatura

##### 3.1.6. Ahoskera

Ahoskera batzordea

#### **3.2. Jagon saila**

##### 3.2.1. Corpus batzordea

##### 3.2.2. Euskalkien lantaldea

##### 3.2.3. Sustapen batzordea

##### 3.2.4. Joanes Etxeberri egitasmoa

#### **3.3. Egiturazko batzorde, lantalde eta egitasmoak**

##### 3.3.1. Argitalpen batzordea

##### 3.3.2. Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea

##### 3.3.3. Informazio eta Telekomunikazioaren Teknologiak (IKT) batzordea

##### 3.3.4. Euskara Batuaren Eskuliburua batzorde suntsikorra

##### 3.3.5. Euskara eskuz esku egitasmoa

### 3. JARDUN AKADEMIKOAK

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzuen bidez garatzen da. Hileroko Osoko bilkurak arau-maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei. Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker saila eta Jagon saila. Lau urterik behin berritzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariak ere izaten dituzte batzordeek. Beste alde batetik, lantaldeak sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera.

Euskaltzain osoak, urgazleak eta hainbat esparrutako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutuetao irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioiko teknikariak eta beste.

Batzorde akademikoak eta lantaldeak egoitzan, lurraldeetako ordezkarietan edo bideo bidezko hitzaldiak erabiliz biltzen dira. Idazkariordearen zeregina da batzorde horien jarraipena eta koordinazioa aurrera eramatea.

## 3.1. Iker saila

### 3.1.1. Hiztegitza

Lexikografia ikerketak behar-beharrezkoak dira hizkuntza akademia baten jardunean. Bai *Orotariko Euskal Hiztegia* bai *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* etenik gabeko eguneratze prozesuan daude.

## Euskaltzaindiaren Hiztegia Adierak eta adibideak

Hiztegi honen abiapuntua *Euskaltzaindiaren Hiztegia lantaldea* da, hiztegia osatzen duten formak proposatzeaz arduratzen dena. Proposatutako forma horiek adieraz eta adibidez hornitzen ditu *egitasmoko taldeak*, eta Euskaltzaindiaren Hiztegia osatzen du.

2019an, sarrera eta azpisarrera berriak gehitu dira hiztegiari, etengabe eguneratzen baita. Horrekin batera, lehendik jasotako formak berraztertu eta adierak osatu dira. 2019an, *Orotariko Euskal Hiztegi*ko azpisarreretan oinarritutako aztergaia osatu eta Osoko bilkuran arautu da. Ondorioz, Euskaltzaindiaren Hiztegia bi aldiz eguneratu da 2019an: *urtarrilean* eta *uztailean*.

EUSKALTZAINDIA ▾ HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ▾ AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA ▾ ARGITALPENAK ▾

MEDEURRENA

## Euskaltzaindiaren Hiztegia

🏠 / Hizkuntza-baliabideak / Online hiztegiak / Euskaltzaindiaren Hiztegia

**Euskaltzaindiaren Hiztegia** ▾

Zer:

Non:

Bilatu

Bilaketa konbinatuak ▾

Letrak ▾

ikus halaber ▾

## EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIA

● ikus halaber

forma=hiztegi sarrera bakarrean aurkitu da.

**hiztegi**

**1** iz. Definizioz edo beste hizkuntza bateko ordainez osaturiko hitz bilduma sailkatua. Ik. izendegi; lexiko. *Hitz bat hiztegiari bilatu. Hiztegi ja. Hiztegi orokorra edo orotarikoa. Orotariko Euskal Hiztegia. Euskararen Hiztegi Etimologikoa. Larraemendiren hiztegia. Hizkuntzalariaren hiztegia. Erdi Aroko funtesaren hiztegia. Ortografia-hiztegia. Sinonimoen hiztegia. Hiztegi elebarrak eta elebizenak. Frontier-ingelez hiztegia. Liburuaren bularren agertzen diren hiztegiaren testuko hitz sailonak jasotzen dira.*

**2** iz. (Hitz elkartuetan, lehen osagai gisa). *Gramatika-hiztak eta hiztegi hizak. Hiztegi sarrerak. Hiztegi larrik.*

## Orotariko Euskal Hiztegia

Orotariko Euskal Hiztegia lan deskribatzailea da, ez arauemailea. Haren xedea garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea biltzea da. [Orotariko Euskal Hiztegia lantzeko egitasmoan](#) 2019an egindako lan nagusia hiztegia TEI (Text Encoding Initiative) estandarren arabera egituratzea izan da, XML formatuan. Bihurketa hori neurri handi batean automatikoki egin da *parser* edo analizatzaile baten bidez, baina eskuzko egituraketa ere beharrezkoa izan da, *parser* horren hutsak zuzentzeko.

Bestalde, sistema berrira aldatzean galdutako edukiak berridatzi dira, errepikaturik agertzen zirenak bakundu, baita XHTMLn gaizki bistaritzen ziren ikurrak (sudurkariak, etab.) zuzendu ere.

2019ko irailetik aurrera, egituraketa honetaz baliaturik, aukera berriak eskaini dira sarean: bilaketa aurrerratuak, leihotxoaren bidezko argibideak. Horretarako, OEHren bibliografia ere egituratu eta sailkatu behar izan da. Iraileko sareratzearen ondoren ere egituratzea osatzeko lanak jarraitu dira, hurrengo argitaraldiei begira.

Iraileko sareratzearen ondoren ere egituratzea osatzeko lanak jarraitu dira, hurrengo argitaraldiei begira.

## Zientzia eta Teknika Hiztegia egitasmoa

Egitasmo honek 2008an hasi zuen ibilbidea, zientziaren eta teknikaren alorrean erabilitako terminologia aztertzeko eta biltzeko asmoarekin. Osoko bilkurari arlo horietako oinarritzko terminoen zerrenda aurkeztea da helburua, horrek onartu ondoren, Euskaltzaindiaren Hiztegian txerta daitezten.

2019an, alorreko espezialistekin elkarlanean, Lurraren Zientzien Oinarritzko Lexikoa prestatu da.



## Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa egitasmoa

Euskal hitzen orain arteko ikerketa historiko eta etimologikoetatik abiatuta, eta Orotariko Euskal Hiztegiaren bildutako informazioa baliatuta, euskal hitzen jatorria eta historia modu sistematikoan aztertzea da asmoa.

2019an bi egiteko nagusi izan dira egitasmoan: batetik, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa (EHHE-200)* prestatzea eta aurkeztea eta bestetik, argitalpen hori aintzat hartuta, uztailearen 4an, [Mendeurrenaren egitarauaren baitan *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*ren aurkezpen jardunaldia egin da.] Hiztegia urriaren 8an *Baionan aurkeztu da* (*Collège Études Européennes et Internationales*-en egoitzan).

[...] Kako artean daudenak Mendeurrenari lotutako ekimenak dira

## Lexikoaren Behatokia egitasmoa

Lexikoaren Behatokia Euskaltzaindiak UZEI, Elhuyar eta UPV/ EHUko IXA taldearekin elkarlanean egiten duen proiektua da. Helburua XXI. mendeko corpusa osatzea da, testu etiketatuak eta lematizatuak biltzen dituen eta lexikoaren azterketarako modu egokian antolatua eta metadatuaz hornitua dagoena. Lexikoari buruzko arauak eta proposamenak dokumentatzeko tresna guztiz baliagarria da.

2019ko egiteko nagusiak bi izan dira: 1) 8.000.000 testu-hitz gehitzea corpusari, testu-iturri berrien bitartez corpusaren oreka areagotuz. Horrela, urte-bukaerara 78 milioi testu-hitzera iritsi da corpusa; eta 2) bilatzaile berria, sarean bilaketa zehatzagoak eskaintzen dituen. Ondorioz, 2019ko azaroan *Lexikoaren Behatokia* eguneratu da.

### Lexikoaren Behatokia

#### LEXIKOAREN BEHATOKIA

Lexikoaren Behatokia egitasmoa Elhuyar, EHUko IXA taldea eta UZEIrekin garatzen ari da Euskaltzaindia. Lexikoaren Behatokiak, ikerketarako testu-corpus etiketatu eta lingüistiki anotatu bat prestatzea du helburu. Euskaltzaindiak prosa arrunteko corpusa prestatu nahi du egitasmo honen bidez, bai lexikoaren erabileraren azterketak egiteko, bai eta lexikoari dagozkion arauak eta gomendioak dokumentatzeko ere. Corpus hori osatzeko hainbat horritzaile aurrekusi dira, hedabideak bereziki, eta horien artean, besteak beste, interes orokorkeko komunikabideak.

Uztailean, Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa - aurkezpena



Uztailean, Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa - aurkezpena





Martxoan, Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren X. liburukia - aurkezpena.



Martxoan, Bilbon, dialektologiari buruz egindako jardunaldi akademikoa



Uztailen, Donostian, gramatikari buruz egindako jardunaldi akademikoa



Uztailen, Bilbon, Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa aurkezteko egindako jardunaldi akademikoa

### 3.1.2. Gramatika batzordea

2019an, honako gai hauen azken idatzaldiak egin dira, eta horiekin, gramatika berriaren azken idatzaldia ia prest utzi da, edizio-lanari ekiteko: Adizki alokutiboak, Atribuzioa eta predikazioa, Perpausak, tipoak, modalitatea, Aditz motak + inperzonalak, Determinatzaileak, Aditz jokatu-gabeak, Kontzesio perpausak.

[Euskaltzaindiaren Mendeurreneko ekitaldien barruan, [Gramatikak XXI. mendean](#) izeneko jardunaldia egin da uztailaren 11n, Donostian. Han aurkeztu du [batzordeak](#) gramatika berriaren zirriborroa, bai eta haren inguruko xehetasun eta berrikuntza nagusiak ere.]

[...] [Kako artean daudenak Mendeurrenari lotutako ekimenak dira](#)

### 3.1.3. Dialektologia

#### Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa

Euskararen Herri Hizkeren Atlasak (EHHA) ahozko euskararen aldaerak mapetan jasotzea du helburu. Hiru zeregin nagusi izan dira 2019an:

[*-Aniztasuna: hizkeren berba-mintzoak* Euskaltzaindiaren II. Nazioarteko Dialektologia jardunaldia egin da 2019ko martxoaren 14an eta 15ean, Bilboko Euskal Museoan.]

[*-Horretaz gain [Euskararen Herri Hizkeren Atlas](#) - X. liburukia* argitaratu da.]

[*-Aipatu bezala, [Euskara 16iltaria erakusketa berritua](#)* jarri da Bilbon, Bermeon eta Donostian.]

[...] [Kako artean daudenak Mendeurrenari lotutako ekimenak dira](#)





### 3.1.4. Onomastika

#### Onomastika batzordea

**Batzordearen** eginkizuna euskal onomastika aztertzea eta arautzea da, hau da, pertsona-izenak, deiturak eta leku-izenak. Termino onomastikoei buruzko ikerketak eta berrikuspenak egin, eta irizpideak ezarri behar ditu, eta egiaztatze- eta aholkatze-lanak ere egin behar ditu.

2019an egindako lan nagusiak honako hauek izan dira:

- Herri-izenei buruzko eskariak aztertu, erabakiak hartu eta erantzun egokia ematea.
- Pertsona-izenei buruzko eskariak aztertu dira.
- Santutegiko izenen araua (66. araua): Osoko bilkurak oharrak eztatbaidatu eta onartu egin ditu otsailean. [Araua azaroaren 8an argitaratu da](#). 424 santu-izen biltzen ditu arauak orain, lehen baino 118 gehiago.
- Iruñeko eta Nafarroako errege-erreginen araugaia: oharraz eztatbaidatzeko prest gelditu zen dokumentua 2018an, eta batzordekideek oharraz egin dituzte. Eztatbaida-aldia amaitzear dago.
- Zeinu diakritikoei buruzko irizpide-txostena: Exonomastika eta Onomastika batzordeetan, diakritikoei buruzko txostena prestatzea eta eztatbaidatzeko eskaera egin du Osoko bilkurak uztailean. Txostena prestatu da, eta eztatbaida-aldian dago.

- **Kale-izenen eskuliburua**. Onomastika batzordeak 1999tik 2018ra bitartean emandako 6.300 kale-izenen datu-basea ustiaturuz, kale-izenak emateko irizpideak eztatbaidatu dira eta eskuliburua prestatu da. Liburua ekainean argitaratu da euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, eta Nazioarteko Onomastika jardunaldian aurkeztu da.



Uztailean, Kale izenen eskuliburua - aurkezpena

- **Euskal Onomastikaren Datutegia**. EODA berritzeko eta datutegian ECO Euskal Corpus Onomastikoaren zati handi bat txertatu eta erakusgai jartzeko lanak egin dira.



- *Pertsona-izendegia* berritzeko, hiru zerrenda prestatu dira: EODAn agertzen ez diren pertsona-izen berriak, hipokoristikoak eta epizenoak. Guztira, orain arte EODAn ez zeuden 800 izen gehitu zaizkio, eta izendegiak 4.900 pertsona-izen inguru ditu orain. Izendegi berria eta izen epizenoari buruzko irizpideak Nazioarteko Onomastika Jardunaldian aurkeztu dira.

- Epizeno edo genero finkorik gabeko pertsona-izenei buruzko irizpide orokorrak landu dira, eta Euskaltzaindiaren Zuzendaritzari bidali zaizkio.

- Pertsona-izendegian, aurrera begira egin beharreko lanak zehaztu dira.

- Toponimia txikia arautzeko irizpideen bilduma: proiektua egiteko aurrelanak egin dira, kronograma landu da, eta lehen atala prest gelditu da oharrak egin eta eztabaidatzeko.

- [Esan bezala, *Onomastika-ondarea babestu eta gizarteratu: han-hemengo esperientziak* Euskaltzaindiaren nazioarteko onomastika jardunaldia egin da 2019ko ekainaren 13an eta 14an, Gasteizen, Europa jauregian.]

[...] [Kako artean daudenak Mendeurrenari lotutako ekimenak dira](#)

## Exonomastika batzordea

Exonomastika batzordearen zeregina Euskal Herriaz kanpoko izen berezien arloa lantzea da. Hartan, era guztietako leku-izenak eta pertsona-izenak sartzen dira. Batzordeak, halaber, proposamenak egiten ditu kanpoko leku- edo pertsona-izenetatik eratorritako bestelako izen arrunten arloan; adibidez, hizkuntza-izenetan (glotonimoetan), herritarren izenetan edo kanpoko izenetatik eratorritako bestelako adjektibo erreferentzialetan. Batzordearen plangintzaren arabera lanez gainera -irizpenak eta araugaiak prestatzea-, herritarrek edo erakundeek Euskaltzaindiari egiten dizkioten exonomastikari buruzko galderei erantzutea ere bada batzordearen zeregina.

### IZENAK - EODA

*Atal honetan, lehenengo eta oraingo euskal pertsona-izenak daude. Helburu nagusi hauek ditu datutegi honek: gurasoei laguntza ematea, haur jaioberrinari euskal izen zuzena jarri ahal izateko; izena aldatu edota euskarazko idazkera zuzenera egokitu nahi dutenei informazio argigarria eskuratzeko; izen baten nondik norakook ezagutu nahi dituenarentzat datu-iturri oparo izatea; izen klasiko eta historikoen euskal aldaerak ezagutu edo erabili behar dituenari informazioa ematea.*

*Izenak hiru ataletan banatuta daude: emakumezkoak, gizonezkoak eta sexu-markarik ez dutenak, epizenoak, alegia.*

#### **i** Lege-oharra

Corpus onomastiko honetan, hirugarrenen lanen edukiak sartu dira, arloan ospea eta gaitasuna dutelako. Ondorio horretarako, behar diren baimenak eta lizentziak eskatu ditu Euskaltzaindiak, eta, horrenbestez, behar diren jabetza intelektualeko eskubideak eskuratu, oker edo hutsik ezean. Edukiren batek hirugarrenen eskubideak hausten dituela uste baduzu, eman lezaiozu berehala horren berri Euskaltzaindiari (honako helbide elektronikoa honetara idatziz: [info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus)), beharrezko neurriak berehala har daitezten.

2019an, batzordeak proposatuta, arau hauek onartu eta/edo argitaratu ditu Euskaltzaindiak:

- Maiatzaren 4ko Osoko Bilkuran *Antzinateko artelanen izenak (II): Erromatar Inperioaren garaiko artelanen izenak* araugaia aurkeztu da. Uztailaren 19ko Osoko Bilkuran, oharrak aztertu eta araugaia onartu egin da.

- Irailaren 27ko Osoko Bilkuran, *Munduko estatuaren izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak* (38. araua) araua eguneratzeko proposamena aurkeztu da, eta 2019ko azaroaren 29ko Osoko Bilkuran onartu da. Abenduaren 18an argitaratu da.

- Abenduaren 18an, *Munduko estatuaren izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak* araua eguneratua argitaratu da, eta *Plazaberrin* iragarri da.



## Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa

Euskal Corpus Onomastikoa euskal izen bereziek euskaraz izan behar duten erabilera egokia finkatzeko tresna izateko asmoz abiatutako egitasmoa da. 2019. urtean zehar, honako lan hauek egin dira:

- *Fuentes jurídicas medievales del Señorío de Vizcaya; Cuadernos legales, capítulos de la hermandad y fuero viejo* (1342-1506) liburuan ageri den informazio onomastikoa jaso da.

- Nafarroako toponimia eta mapagintza bildumako leku izenak EODara atera dira.

- "Sur les noms propres basques contenus dans quelques documents pyrénéens des XIe, XIIe et XIIIe siècles" artikuluan iruzkintzen diren era onomastiko guztiak jaso dira *erak* taulara.

- *Colección documental de Archivo General del Señorío de Vizcaya* liburukian horretako dokumentuetan dauden datu onomastiko guztiak jaso dira.

- Frantziako IGNrentzat egin zen Euskal Herriko toponimiaren ikerketan eman ziren arautze proposamen guztiak EODara ateratzeko prest utzi dira EON.

- Pertsona-izendegia osatze aldera, Exonomastika alorreko 1997ko 76. arauari 2014an egin zitzaion bertsio "osatua, eguneratua eta emendatua" jaso da, premiaz, ECO datutegira. Guztira 569 era dokumental berri gehitu dira *erak* taulara.

- Pertsona-izendegia osatze aldera, Exonomastika alorreko 1998ko 82. Arauari 2014an egin zitzaion bertsio "osatua, eguneratua eta emendatua" jaso da, premiaz, ECO datutegira. Guztira 337 era dokumental berri gehitu dira *erak* taulara.

- *Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Pamplona/Iruña* liburukian datorren informazio guztia jaso da ECOra.

- 129, 175, 176 eta 177. arauetan agertzen diren izenei dagozkien beste hizkuntzeko ordainak jaso eta gaztelaniazko, frantsesezko nahiz ingelesezko aurkibideak sortzeko moduan gorde dira.

- *Noms de lieux et de personnes à Bayonne, Anglet et Biarritz au XVIII siècle. Origine, signification, localisation, proportion et fréquence des noms recensés*, Hector Iglesiasen doktore-tesiaren bertsio bibliografiko horretatik lekukotasun dokumental guztiak jaso dira.

- 156 eta 163. arauetan adibide gisa aipatzen diren item onomastiko guztiak jaso eta dagozkien erregistro nagusiekin estekatuta utzi dira.

- *Exonomastika 179.- Bizantziar Inperioko pertsona-izenak* arauan ematen diren izen guztiak jaso eta estekatuta utzi dira.

- ECOko *lekuak* taulan jasota dauden leku izenetan egon litezkeen mugatzaileak bilatu eta haien informazioa jaso da.

- *Toponimia navarra VIII, Cuenca de Pamplona, Pamplona/Iruñea* lanean datorren informazio guztia jaso da ECOra.

- *Aiarako toponimia nagusia / Toponimia mayor de Ayala* liburuan aztertzen diren leku-izen guztiak eta haietaz egindako iruzkin guztiak jaso dira *erak* taulara.

- "Toponymie basque" artikuluan iruzkintzen diren era onomastiko guztiak jaso dira *erak* taulara.

- *Leioako leku-izenak* liburuan aztertzen diren leku-izen guztiak eta haietaz egindako iruzkin guztiak jaso dira *erak* taulara.

- *Orotariko Euskal Hiztegiko* corpusean, XIX. mendeko bitarte horretako euskal idazleek aipatu eta corpus horretan jasotako era onomastikoak erregistro nagusiekin estekatu dira.

- *Les noms des maisons médiévales en Labourd, Basse-Navarre et Soule* liburuan egileak jorratzen dituen item onomastikoak jaso dira *erak* taulara.

- *Exonomastika 180.- Goi Erdi Aroko pertsona-izenak*. Germaniar jatorriko pertsona izenak arauan ematen diren izen guztiak jaso eta estekatuta utzi dira.

- *Colección Documental de Sancho VII el Fuerte (1194-1234)* liburuan lehenengo 42 dokumentuetan ageri diren era onomastiko guztiak jaso dira.

## Gasteizko toponimia egitasmoa

Euskaltzaindiaren eta Gasteizko Udalaren artean sinatutako lankidetzahitzarmenari esker, 1996tik egiten ari da Gasteizko toponimia historikoa izeneko ikerketa-proiektua, barnean hartzen dituena hala hiriburua nola XIII. mendean geroztik pixkanaka anexionatutako 64 herrirka edo biztanle-landaguneak.

Proiektuaren helburu nagusia udalerriko leku-izen guztien azterketa historiko-linguistikoa, sailkapena eta normatibizazioa egitea da; horretarako, bai tokiko agiritegietan (sei mendeko aldi bat da, XIV-XX. mendeak) bai gaur egungo agiritegietan dauden leku-izenak hartzen dira kontuan. Ikertzeko eta emaitzak argitaratzeko, XI. mendean (1025. urtean) Araba osatzen zuten antzinako merindadeen arabera multzokatu dira herriak. Merindade horiek *Donemiliagako Goldea* dokumentu ezagunean aipatzen dira, eta, gaur egungo muga administratiboekin bat ez badatoz ere, gidarizat hartu dira ikerlana planifikatzeko eta aurkezteko.

2019ko lanik esanguratsuenak honako hauek izan dira: batetik, *Arratzua III* liburuaren prestaketa eta bestetik, *Dibiña I* datutegiaren prestaketa.



### 3.1.5. Literatura

Batetik, Euskal Literaturaren Antologia (ELAN) lantzen ari den taldeak, 2019an, Antologiaren bigarren liburukia, *Errenazimentutik Ilustraziora (XVII-XVIII. mendeak)* osatzen jarraitu du. Atal berriak landu ditu, hautatutako testuak zehatuz, sarrerak osatuz eta oin-ohar argigarriak taxutuz.

Bestetik, *[Idazkien eta hizkuntzen arteko itzulpena: eskuizkribuak, inprimakiak, literatura-artxiboak]* Euskaltzaindiaren nazioarteko literatura jardunaldia egin da 2019ko maiatzaren 16an eta 17an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan]. Informazio gehiago [hemen](#).

Maiatzean, Bilbon, literaturari buruz egindako jardunaldi akademikoaren aurkezpena



Maiatzean, Bilbon, literaturari buruz egindako jardunaldi akademikoa

### 3.1.6. Ahoskera

#### Ahoskera batzordea

[Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren egitarauaren baitan, [Eta ahoskera zer? jardunaldia antolatu da 2019ko otsailaren 14an, Gasteizen, Artiumen.](#)]

Euskara Batuaren ahoskera zaindua (EBAZ) arauaren muina, ahoskeraren garrantzia eta irakasgaitasuna komunikatzea entzule askoren aurrean egin ahal izan da, eztabaida tarteak ere esanguratsu eta biziak izan direlarik.

Aurreikusitako ikastaro eta mintegien prestaketa ere egin da, eta arduradunekiko koordinazioa landu da kronogramak antolatzeko. Hortik finkatu da Iruñean UEUK gonbidatuta ikastaro teoriko-praktikoa ekainaren 25erako. Era berean, urriaren 22rako beste ikastaro bat finkatu da, Gasteizen, Oihaneder Euskararen Etxean.

Urtearen azken aldi horretan, Batzordearen betiko kezka didaktikoak direla medio, *La Jauría* antzetzaldearekiko harremana izan da haren obra bateko ahoskera-protokoloen inguruan.

[...] [Kako artean daudenak Mendeurrenari lotutako ekimenak dira](#)

Otsailean, Gasteizen egindako jardunaldi akademikoa



## 3.2. Jagon saila

### 3.2.1. Corpus batzordea

Batzorde honen zeregin nagusia euskararen corpora eta hizkuntzaren kalitatea zaintzea da. Batzordearen egiturari, hizkuntzaren alorreko galde-erantzunen datu-basea garatzen duen Jagonet zerbitzua dago. Euskaltzaindiari iristen zaizkion eta Zuzendaritzak Corpus batzordearen esku utzitako irizpen-eskeak aztertu eta epaitzea du lanik behinena.

### 3.2.2. Euskalkien lantaldea

Jagon saileko Corpus batzordeko atal gisa sortu zen Euskalkien lantaldea 2001. urtean. Euskalkiek duten eta izan behar duten tokiaz gogoeta eta azterketak egitea da Euskalkien lantaldearen xedea.

2019an, Labayru Hiztegiko T, U, X eta Z letretako 473 sarrera landu dira. Horietatik, osotara, 120 hitz proposatuko dira Euskaltzaindiaren Hiztegiaren 3. itzulirako, eta 353 hitz baztertu dira (hitz horietako batzuk beste euskalki batzuetakoak dira).





Urtarrilean, Iruñean, hizkuntza gutxiagotuak jagoteari buruz egindako jardunaldi akademikoa



Urtarrilean, Iruñean, hizkuntza gutxiagotuak jagoteari buruz egindako jardunaldi akademikoa

### 3.2.3. Sustapen batzordea

Euskaltzaindiak 1999. urtean eratu zuen Sustapen batzordea, Jagon sailaren barruan, euskararen estatusa babesteko helburuarekin. 2019an egindakoak honako hauek izan dira:

- *Araba, euskaraz bidea egiten* XXII. Jagon jardunaldiko testuak argitaratu dira Jagon bilduman.
- *Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria (1964-2018)* Kolokioaren agiriak argitaratu dira.
- *[ Hizkuntza gutxiagotuak jagon, euskaraz bizi* Euskaltzaindiaren XXIII. Jagon jardunaldia antolatu da 2019ko urtarrilaren 17an eta 18an, Iruñean, Baluartean.]
- *Euskara indarberritzen jarraitzeko bide berriak* mintegia antolatu du Bilbon, uztailaren 17an, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan.

- *Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean* XXIV. Jagon jardunaldia egin da, azaroan 14an eta 15ean, Bilboko Merkataritza Ganberan. Jardunaldiko hitzaldien bideoak [hemen](#) ikus daitezke. Informazio gehiago aurki daiteke bi kronika hauetan: [kronika 1](#) eta [kronika 2](#).

- *Immigrazioa eta euskara: ikuspegi berri baten beharraz* mintegia Bilbon, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan, abenduaren 12an.

- Nafarroa Oinez dela eta, Nafarroako ordezkartzarekin batera bisita eta ekitaldia prestatu eta koordinatu da.

- *Euskaltzaindiaren adierazpenak - Euskararen sustatzea* (1976-2018) liburua eguneratu da.

- *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz* liburuaren bigarren argitaraldi berrikusi eta emendatua argitaratu da.

[...] [Kako artean daudenak Mendeurrenari lotutako ekimenak dira](#)



Azaroan, Bilbon, arlo sozioekonomikoa eta euskararen biziberritzeari buruz egindako jardunaldi akademikoa



Azaroan, Bilbon, arlo sozioekonomikoa eta euskararen biziberritzeari buruz egindako jardunaldi akademikoa





### 3.2.4. Joanes Etxeberri egitasmoa (Euskararen Historia Soziala)

Euskararen Historia Soziala (EHS) deritzon Euskaltzaindiaren egitasmoak giza dimentsioa ikertzen du, aldi historiko eta herrialdearen gune jakin batzuetan islatuta, euskararekiko harremanetan jarrita, eta ondoren gurearekin ukipenean izan diren beste zenbait hizkuntzarekin. Beraz, diziplinarteko jardura da, hizkuntzaren soziologiaren, hizkuntzalaritzaren, eta, jakina, historiaren oinarrizko elementuak konbinatzen dituena. Honako hauek dira, 2019an egindako lan nagusiak:

- 2015ean prestatu zen Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa argitalpenaren ingelesezko laburpen-libururako prestaketa lanak egin dira.
- Taxonomia soziolinguistikoaren azterketa teorikoa egin da eta aldaketak termino soziolinguistikoaren zehaztean txertatu dira.

- *La Vasconia peninsular en las fuentes árabes (años 711 - 929)* liburua argitaratu da. Liburuaren egilea Jesús Lorenzo Espinosa da.

- *Hitz-erabidea, Euskararen Historia Sozialerako iturri* garatzen jarraitu da.

- Donostian historikoki mintzatu izan diren (gutxienez) bost hizkuntzen historia sozialaren eboluzioaz egindako jardunaldian irakurri ziren txostenak jaso eta moldatu dira eta *Etxeberri* bildumako liburu batean argitaratuko dira.

- Joanes Etxeberri egitasmoak zenbait euskal udalerritan egin diren soziolinguistika historikoari buruzko hainbat ikerketatan parte hartu du (Zumaia eta Zestoa).

Apirilean, *La Vasconia peninsular en las fuentes árabes (años 711-929)* liburuaren aurkezpena



### 3.3. Egiturazko batzorde, lantalde eta egitasmoak

#### 3.3.1. Argitalpen batzordea

Batzorde honek Euskaltzaindiaren argitalpen guztiak programatu eta antolatzen ditu. Horien artean, *Euskera* agerkaria, Akademiaren aldizkari ofiziala, 1919tik kaleratzen dena -nahiz eta 1938-1952 eta 1954-1955 urteen artean etenak izan-. Agerkari horren bitartez, Euskaltzaindiak bere lanak ezagutzera eman ohi ditu.

2019an, agerkariaren hiru zenbaki aurkeztu dira, horietako bat, bizitza akademikoaren berri ematera bideratua, eta, beste biek, arloko ikerketan lanak biltzen dituzte. Batzordearen zuzendaritzapean, Argitalpen zerbitzuak argitalpenen egunerokoak kudeatzen ditu. 2019an argitaratu diren lanen berri Argitalpen zerbitzuaren atalean ematen da.

#### Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea

Azkue Biblioteka eta Artxiboa Euskaltzaindiaren zerbitzura dago. Horrez gainera, zabalik dago ikertzaile ororentzat eta bere ahalbideen neurrian euskal kultura gaien ikerkuntza eta hedapena sustatzen eta laguntzen saiatzen da.

2019an, Azkue Biblioteka eta Artxiboaren ohiko zereginak bideratu dira, lan garrantzitsuenei jarraipena eginez.

#### 3.3.3. Informazio eta Telekomunikazioaren Teknologiak (IKT) batzordea

Batzorde honen bi zeregin nagusiak dira Euskaltzaindiaren edukiak erabilaraztea eta gizarteratzea, eta testu-corpusak elikatzea, egituratzea, bateragarri bihurtzea eta gizarteratzea.

[Ohiko lanez gain 2019an *Ingurune digitala, hizkuntzen estandarizazioa eta euskara* nazioarteko jardunaldia egin da 2019ko irailaren 12an eta 13an, Donostian, Tabakaleran.]

[...] [Kako artean daudenak Mendeurrenari lotutako ekimenak dira](#)



### 3.3.4. Euskara Batuaren Eskuliburua batzorde suntsikorra

Batzorde honen helburu nagusia Euskara Batuaren Eskuliburua prestatzea da. Hein berean, eskuliburuaren asmoa Euskaltzaindiaren jarduera arauemailearen berri ematea da, eta, beraz, euskararen hainbat ikerketa eremu arautzen ditu: ahoskera, lexikoa, kalko okerrak, morfologia, sintaxia, onomastika eta ortotipografia. Eskuliburuaren ikuspegia erabat praktikoa da eta euskal hiztun jantzia (EGAtik gorakoa, baina espezialista izan gabe) da hartzailea.

2019an honako hauek egin dira:

- Jagonet datu-baseko galde-erantzunak aztertu, eguneratu (mantendu, zuzendu, egokitu, osatu, kendu, gehitu...), ontzat eman eta Euskara Batuaren Eskuliburuko edukiekin lotu dira.

- *Euskara Batuaren Eskuliburuaren* hirugarren berrinprimaketa prestatu da.

- *Euskara Batuaren Eskuliburua* ongi erabiltzeko saioak antolatu dira EIZIErekin elkarlanean. Informazio gehiago [hemen](#).

### 3.3.5. Euskara eskuz esku egitasmoa

*Euskara eskuz esku* proiektuak Ipar Euskal Herriko hiztunei hizkuntza-aniztasuna kontuan hartzen duen euskara batuaren hedatzeko tresna linguistiko berria ematea du helburu. Euskarri horrek Euskaltzaindiak ematen dituen gomendioak eta arauak proposatuko ditu artikulu errazen bidez, Ipar Euskal Herriko hizkuntza-aniztasunari dagozkionak azpimarratuz. Hizkuntza idatziari eta ahoskoari lotuak diren eremu guztiak kontuan hartuko ditu: ortografia, morfosintaxia, hiztegegintza, fonetika eta fonologia, onomastika, dialektologia, literatura, euskara batua eta Iparraldeko euskalkiak, euskara batua eta euskararen estatusa Iparraldean.

2019an, egitasmoaren webgunearen atalak landu dira: bideoak, frantsesezko azpitoluak, idazteko arauak eta gomendioak, ahoskera, puntuazioa...



# 4.

## ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

### 4. ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

4.1. Azkue Biblioteka eta Artxiboa zerbitzua

4.2. Onomastika zerbitzua

4.3. Argitalpen zerbitzua

4.4. Informatika zerbitzua

4.5. Komunikazioa eta Irudia zerbitzua

4.6. Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

## 4. ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu horiek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio-lanak eta hor kokatzen dira zerbitzuak: Idazkaritza, Ekonomia, Azkue Biblioteka, Onomastika, Argitalpenak, Komunikazioa eta Irudia, eta Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuak. Hizkuntza Kalitatearen Behatokia -horren barruan dago Jagonet zerbitzua-, berriz, Luis Villasante Euskararen Ikergunean dago kokatuta.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko lau hiriburutan, hots, Baionan, Donostian, Gasteizen eta Iruñean ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Halakoak egoitzatik eta ordezkaritzetatik bideratzen dira.

Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan horien guztien berri ematen dio Zuzendaritzari, bai eta, ezarritako epeetan, dagokien herri administrazioei ere, eta beharrezko txostenak prestatzen ditu. Herri-aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, batzorde teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu, kudeatzailearekin batera.

## 4.1. Azkue biblioteka eta artxiboa zerbitzua

Zerbitzua lau atal nagusitan bereizten da:

- Azkue Bibliotekaren Artxiboari dagokionez, Eugenio Arotzenaren Antzerki bilduma: Funtsaren katalogazioa amaitu eta jendearen eskura jarri da, Artxiboan jasotako funtsen kudeaketa arrunta egin da eta Piarres Xarritonen biblioteka eta artxiboa katalogatzen hasi da.

- Azkue Bibliotekako Katalogoa mantendu eta eguneratu da.

- Dokumentazio Zentroari dagokionez, euskaltzainen Dosier Bildumaren mantentze-lanak egin dira, euskaltzain osoen fitxak eguneratu dira eta Azkue Bibliotekako Irudiak atalaren mantentze-lanak egin dira.

- Informazio, Harrera eta Kopia Zerbitzuaren bidez, Bibliotekara hurbildu diren 199 lagunei arreta-zerbitzua eskaini zaie eta 1.344 kontsulta bideratu dira. Horiez gain, 1.300 eskari inguru jaso eta erantzun, 292 pertsona artatu eta 24 kopia-eskari gauzatu dira. Gainera, 7 talde-bisita antolatu dira eta, horietan, 120 lagunek parte hartu dute.

Aipaturikoez gain, 2019an, Euskaltzaindiaren webgunea osatzeko hainbat lan egin dira, bereziki *Euskera* agerkariaren digitalizazioaren harira; Ondarearen Europako jardunaldiak burutu dira, lau hitzaldi eta 36 parte hartzaileekin (informazio gehiago [hemen](#)); hainbat erakusketa birtual prestatu da; Literaturari buruzko Nazioarteko Jardunaldiaren harira erakusketa bat prestatu da egoitzan; Espainiako Gobernuako Presidentearen bisitaren harira erakusketa bat prestatu da bibliotekan.

### Azkue Biblioteka eta Artxiboa

🏠 / Azkue Biblioteka eta Artxiboa

#### AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA

- > Bibliotekaren berri
- > Bibliotekaren katalogoa
- > Artxiboaren katalogoa
- > Zerbitzuak
- > Harremana

> Bilatu Bibliotekaren katalogoan

> Bilatu Artxiboaren katalogoan

#### ERAKUSKETA BIRTUALAK



#### FUNTS BEREZI BATZUK

- > Resurreccion Maria Azkue
- > Auspoa
- > Principe de Viana
- > Analtasuna
- > Luis Villasante
- > Nafarkaria
- > Herri Literatura
- > Euskararen Historia Soziala

#### BBK-EUSKALTZAINDIA LITERATURA ATARIA

- > BBK-Euskaltzaindia sariak
- > Azkue sariketak (1975-1990)
- > Azkue sariketak (haur eta gazteak)

## 4.2. Onomastika zerbitzua

Zerbitzuak EAEko Jaurlaritzak eta aldundiek, Nafarroako Gobernuak, Euskararen Erakunde Publikoak (EEP), Euskal Hirigune Elkargoak, udalek, herriek, elkarteek, enpresek eta gizabanakoek egindako eskariak aztertu, erantzun proposamenak prestatu eta erantzun ditu: txostena, irizpena, ziurtagiria edo bestelakoa. Halaber, ponte-izen eta abizenei buruzko kontsultak aztertu, erantzun proposamenak prestatu eta dagozkien erantzunak bideratu ditu. Pertsona-izenei buruzko 599 eskari artatu ditu, eta 169 deiturei buruzkoak. Eskari gehienak Erregistro zibiletatik eta bake-epaitegietatik etorri dira, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegotik eta Nafarroako Foru Komunitatetik, nahiz eta Espainiako estatutik ere batzuk jaso diren.

Plentziako ikerketa amaitu eta Artea, Astigarraga, Bastida, Elorrio, Erandio, Etxebarri, Etxebarri, Iruña Oka, Munitibar, Pasaia, Soraluze, Trapagaran, Usurbil, Zestoa, Zizurkil, Zumaia eta Zumarragako udal mapak gauzatzeko aholkularitza eman da.

Iparraldeko bide eta kale izenei dagokienez, ondokoak igorri zaizkio Euskal Hirigune Elkargoari: Aiherrako etxeak, Ainhize-Monjolose, Ainhua, Aintzila, Aldude, Altzuetako 2 izen, Arberatze-Zilhekoa, Arboti-Zohota, Arhantsusi, Armendaritze, Arrosa, Arüe-Ithorrotze, Baigorri, Banka, Behauze, Biriatu, Bithiriña, Bizkai izena, Donaixti-Ibarre, Donamartiri, Donibane Garazi, Donibane Lohizuneko zalantzak, Donoztiri, Erango, Etxarri, Ezpeize-Ündüreine, Gabadi, Gamarte, Haltsu, Heleta, Hozta, Idauze-mendi, Irulegi, Izturitze, Jatsu, Jutsi, Labetze-Bizkai, Lakarra, Lixoze, Martxueta, Maule-Lextarre, Mehaine, Montori, Oragarre, Pagola, Suhuskune eta Ürrüstoi-Larrabile.



### 4.3. Argitalpen zerbitzua

Orain arte aipaturiko argitalpenez gain, 2019an, honako hauek ere argitaratu dira:

- *Janpierra Lexardoarteren bizi-zeza edo Basabürüaren trajeria*. Bilduma: Euskaltzainak 28. Egilea: Jakes Sarraillet.

- *Le dauphin: 1757ko gutuneriari buruzko osagarriak eta gogoetak, «othoi çato etchera»*. Bilduma: Iker 36, Egilea: Xabier Elosegi.

- *Euskara Batuaren Eskuliburua. A-tik Z-ra, zalantzak eta argibideak*. 3. argitaraldia. Egilea: Euskaltzaindia.

- *Narrazioak eta Olerkiak 2018*. Resurreccion Maria Azkue haur eta gazteentzako literatura sariak 2018.

- *Euskera 2018, 1 (zenbaki arrunta)* Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala.

- *Euskera 2018, 2-1 (ikerketaren zenbakia)* Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala.

- *Euskera 2018, 2-2 (ikerketaren zenbakia: Joan Mari Torrealdairi omenaldia: Literatura eta Zentsura. Memoria eztabaidatuak)* Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala. Argitarazleak: Mari Jose Olaziregi eta Lourdes Otaegi.

### 4.4. Informatika zerbitzua

Euskaltzaindiaren Informatika zerbitzuaren helburu nagusia erakundearen telekomunikazio eta informatika zerbitzuak egoki mantentzea da. Horrekin batera, zerbitzu horiek hobetze aldera, berrikuntza proiektuak koordinatzen dira. 2019an zehar honako lan hauek egin dira:

- Orotariko Euskal Hiztegiaren migrazio lan nagusiak egin dira, erredakziorako (software berria) prozedura findu, Web bilatzailearen analisi, diseinu eta garapen lanak egin dira eta Orotariko Euskal Hiztegiaren bertsio berria webgunean kargatu eta erabiltzaileen eskueran jarri da.

- Euskal Corpus Onomastikoaren edukiak handitu dira eta bilatzailea eguneratu da.

- Webgune berrituan edukiak gaurkotu eta argitalpen berriak txertatu dira, Euskal Corpus Onomastikoan datu kargak egin dira, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren datu-baseak eguneratu dira, Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren X. liburukiaren argitalpen prozesurako esportazioa egin da, *Euskera* agerkariaren hemerotekan artikuluen berriak txertatu dira.



## 4.5. Komunikazioa eta Irudia zerbitzua

Zerbitzu honen helburu nagusia da gizarteak Akademiaren jardueraren berri izatea eta, era berean, Akademiak beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea.

Horretarako, zeregin hauek egin ditu Komunikazioa eta Irudia zerbitzuak 2019an: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzea (gaur egun 149 hedabidek -edo norbanakoek- jasotzen dituzte Euskaltzaindiaren deialdi eta prentsa-oharrak); euskaltzainen curriculumak egitea eta eguneratzea; webguneko bestelako atalak gaurkotzea (Euskara Ibiltaria erakusketa interaktiboa eskegi dugu bertan); Plazaberri bloga ere kudeatzea, eta, gainera, sare sozialetan Akademiak dituen plataformak zaindu eta elikatzen ditu, egunero (Facebook, Twitter, Youtube eta Instagram); azkenik, Euskaltzaindiaren ekitaldietako argazkien eta bideoen ardura ere zerbitzu honi dagokio.

## 4.6. Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Euskaltzaindiak 2013ko Barne Jardunaldietan, Akademiako beste zerbitzuekin elkarlanean jardungo zuen zerbitzu zentral eta orokor bat sortzea erabaki zuen: Hizkuntza Kalitatearen Behatokia. Behatokiaren lanaren helburuak hauexek dira: a) Euskaltzaindiak eredugarria izan behar du bere argitalpenen euskara mailari dagokionez. b) Akademiaren ekoizpenak zabalkunde didaktikoa izan behar du. Horretarako baliabide guztiak erabiliko ditu eta tresna informatikoak lehenetsiko ditu. c) Euskalgintzak zer premia duen identifikatu eta haren eskariak ahalik eta azkarren erantzun. d) Lan eta beharizan hurbilenak lehenetsi, urrutiagoko lanak alboratu gabe. HIZBEAk hainbat liburu eta lan zuzendu ditu 2019an, Zuzendaritzak, Argitalpen batzordeak eta Irudia eta Komunikazio eta Irudia zerbitzuak eskaturik.

5.

# GIZARTERATZEA: WEBGUNEA ETA SARE SOZIALAK


## 5. GIZARTERATZEA: WEBGUNEA ETA SARE SOZIALAK

Sare sozialekin batera, webgunea da Euskaltzaindiaren leihorik eraginkorrena.

- Guztira, 800.204 erabiltzaile izan ditu Akademiaren [webguneak](#), eta kontsultatutako orrien kopurua % 42,12 igo da 2018arekiko. Guztira, 1.576.393 saio zabaldu dira 2019an (2018an, milioi bat saio ireki ziren), eta kontsultatutako orrien kopurua % 42,12 igo da (2018an, 4.547.062; 2019an, ordea, 6.463.164).

- *Plazaberri* blogak gora egin du nabarmen, eta 2019ko albisterik irakurriena honako hau izan da: Euskaltzaindiak genero-markarik gabeko izenak erantsi ditu pertsona-izendegian (1.279 ikustaldi).


Mendeurrenaren baitan, webgunea berritu eta indartu du euskararen Akademiak, eta Arantzazuko Biltzarrean aurkeztu zuen lanabes berria, hain zuzen, 2018ko urrian. Orduetik hona, erabiltzaileen kopuruak gora eta gora egin du. Horretara, 2018an, 496.423 erabiltzaile izan zituen Euskaltzaindiaren webguneak, eta 2019an, aldiz, 800.204 izan dira (% 61,19ko igoera).



Aurreko urteetan bezala, gehien kantsultatu diren atalak ondoko hauek izan dira: *Euskal Onomastikaren Datutegia* (EODA), *Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH), *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (EH), eta *Euskara Batuaren Eskuliburua* (EBE).

Plazaberri blogak ere gorakada nabarmena izan du 2019an, eta hauek izan dira albisterik irakurrienak: *Euskaltzaindiak genero-markarik gabeko izenak erantsi ditu pertsona-izendegian* (1.279 ikustaldi); *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa: euskararen historia ezagutzeko lan-tresna "txiki baina garrantzitsua" aurkeztu du Euskaltzaindiak* (679 ikustaldi); *Ahoko komunikazioa hizpide Gasteizko biltzarrean* (352 ikustaldi).

2019an, gora egin du Akademiak sare sozialetan dituen jarraitzaileen kopuruak; honela, Facebook-en 3.104 jarraitzaile ditu Euskaltzaindiak, Twitterren 5.179 eta Instagramen 832. YouTube ere leiho garrantzitsua da Akademiarentzat, eta hauspo handia hartu du 2019an: guztira, 30 bat bideo egin eta eskegi baitira, jardunaldi akademikoetan izandako hitzaldiez gain.



Web-orrialde bistaratzeak

## Webguneko berrikuntza nagusiak - 2019

**2019-01-11**

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren edukia eguneratu da.

**2019-01-18**

Hizkuntza-zuzenbidea II liburuaren online bertsioa aurkeztu da. Liburua PDF eta ePub bertsioetan deskargatzeko moduan egoteaz gain, online kontsulta aurreratuaren bidez online irakur daiteke.

**2019-01-18**

Euskaltzaindiaren Adierazpenak liburuaren online bertsioa aurkeztu da. Liburua PDF eta ePub bertsioetan deskargatzeko moduan egoteaz gain, online kontsulta aurreratuaren bidez online irakur daiteke.

**2019-06-14**

Euskal Corpus Onomastikoa berritu eta osatu ondoren, online jarri da. Erregistro kopuru handiagoa eskaintzeaz gain, erregistro bakoitzaren informazio osatua eskaintzen da.

**2019-07-09**

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren edukia eguneratu da.

**2019-09-13**

Orotariko Euskal Hiztegia berritu, osatu eta barne berregituratze osoa egin ondoren, sarrera bakoitzaren osagaiak markatu dira. Online kontsulta berritua abian jarri da, bilatzaile aurreratuarekin.

**2019-09-13**

Lexikoaren Behatokia corpus arakatzaillearen bertsio berritua eta osatua aurkeztu da. Bilaketa modu berriak eskaintzeaz gain, corpora zazpi milioi hitz berriekin osatu da.

**2019-11-29**

Euskara Ibiltaria erakusketaren online bertsioa argitaratu da. Erakusketa fisikoaren elementu guztiak modu birtualean ikusi eta entzun ahal izateko online ingurunea da.

**2010-12-03**

Euskara Batuaren Eskuliburuaren hirugarren bertsio osatua eta zuzendua online jarri da.

6.

# BALANTZE EKONOMIKOA

2019. urtea

EUSKALTZAINDIA (G48091961)

Balantzea (Eurotan)

AKTIBOA			PASIBOA		
	2019/12/31	2018/12/31		2019/12/31	2018/12/31
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>637.780</b>	<b>680.989</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>1.426.949</b>	<b>1.448.802</b>
<b>Ibilgetu ukiezina</b>	<b>85.289</b>	<b>109.802</b>	<b>Fondo propioak</b>	<b>1.141.971</b>	<b>1.144.283</b>
Patenteak, lizentziak, markak eta antzerakoak	-	359	Aurreko ekitaldietako soberakinak	1.144.283	1.146.022
Aplikazio informatikoak	85.289	109.443	Ekitaldiko soberakina	(2.312)	(1.739)
<b>Ibilgetu materiala</b>	<b>521.890</b>	<b>540.586</b>	<b>Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak</b>	<b>284.978</b>	<b>304.519</b>
Lurrak eta eraikuntzak	427.742	455.325			
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	94.148	85.261			
<b>Epe luzeko finantza-inbertsioak</b>	<b>30.601</b>	<b>3 0.601</b>			
Beste aktibo finantzarioak	30.601	30.601			
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>1.187.527</b>	<b>1.357.120</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>398.358</b>	<b>589.307</b>
<b>Izakinak</b>	<b>33.209</b>	<b>23.452</b>	<b>Epe laburreko zorrak</b>	<b>2.251</b>	<b>229.469</b>
<b>Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak</b>	<b>88.981</b>	<b>53.749</b>	Beste pasibo finantzarioak	2.251	229.469
<b>Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak</b>	<b>662.232</b>	<b>662.237</b>	<b>Hartzeko komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak</b>	<b>396.107</b>	<b>347.838</b>
Hainbat zordun	19.050	27.996	Hornitzaileak	119.611	78.984
Zordunak, Herri Aginteak	643.182	634.241	Langileria	30.383	19.264
<b>Epe laburreko finantza-inbertsioak</b>	<b>800</b>	<b>800</b>	Hartzekodunak, Herri Aginteak	246.113	249.590
<b>Epe laburreko periodifikatzeak</b>	<b>3.625</b>	<b>-</b>	<b>Epe laburreko periodifikatzeak</b>	<b>-</b>	<b>12.000</b>
<b>Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</b>	<b>398.680</b>	<b>616.882</b>			
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.825.307</b>	<b>2.038.109</b>	<b>PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA</b>	<b>1.825.307</b>	<b>2.038.109</b>

## 2019. urtea

## EUSKALTZAINDIA (G48091961)

## Galdu-irabazien kontua (Eurotan)

Ekitaldia	2019	2018
<b>Erakundearen berezko jardueraren sarrerak</b>	<b>3.014.120</b>	<b>2.859.826</b>
Salmentak, promozioak eta lankidetzak hitzarmenak	99.665	92.670
Ekitaldikoa soberakinari egotzitako diru-laguntzak	2.914.455	2.767.156
<b>Ekoizkin bukatuen eta fabrikazioan dauden ekoizkinen aldaketa</b>	<b>9.757</b>	<b>8.540</b>
<b>Ustiapeneko bestelako sarrerak</b>	<b>12.010</b>	
<b>Pertsonal gastuak</b>	<b>(1.428.276)</b>	<b>(1.419.805)</b>
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(1.086.795)	(1.091.879)
Gizarte-zamak	(341.481)	(327.926)
<b>Ustiapeneko bestelako gastuak</b>	<b>(1.545.618)</b>	<b>(1.386.915)</b>
Kanpoko zerbitzuak	(1.544.297)	(1.386.705)
Tributuak	(1.313)	(113)
Merkataritza eragiketetatik datozen horniduren aldaketak, hondatzeak eta galerak	(8)	(97)
<b>Ibilgetuaren amortizazioa eta hondatzea</b>	<b>(79.982)</b>	<b>(86.781)</b>
<b>Ekitaldikoa soberakinari traspasatutako kapital diru-laguntzak</b>	<b>19.548</b>	<b>26.652</b>
<b>USTIAPENENKO SOBERAKINA</b>	<b>1.559</b>	<b>1.517</b>
<b>Sarrera finantzarioak</b>	<b>41</b>	<b>41</b>
Balore negoziagarriak eta bestelako finantza-tresnak	41	41
Horniduren eguneratzea		
<b>Gastu finantzarioak</b>	<b>(3.912)</b>	<b>(3.297)</b>
Hirugarrenetikiko zorrenak	(3.912)	(3.297)
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA</b>	<b>(3.871)</b>	<b>(3.256)</b>
<b>EKITALDIKO SOBERAKINA</b>	<b>(2.312)</b>	<b>(1.739)</b>



**EUSKALTZAINDIA  
2019****Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak**

Eusko Jaurlaritza	1.400.000,00 €
Bizkaiko Foru Aldundia	355.000,00 €
Gipuzkoako Foru Aldundia	275.220,00 €
Espainiako Gobernua	200.000,00 €
Nafarroako Gobernua	163.771,68 €
Arabako Foru Aldundia	100.000,00 €
Aralar Alderdi Politikoa	91.650,00 €
Gasteizko Udala	79.000,00 €
Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa	70.709,03 €
Laboral Kutxa	55.000,00 €
Bilboko Udala	41.500,00 €
Kutxa Banku Fundazioa	18.000,00 €
Donostiako Udala	15.604,00 €
EUDEL – Euskadiko Udalen Elkarte	15.000,00 €
Iruñeko Udala	12.000,00 €
Eroski Fundazioa	10.000,00 €
ULMA Taldea	5.000,00 €
Euskal Herriko Unibertsitatea	5.000,00 €
Etxepare Euskal Institutua	2.000,00 €

**Guztira 2.914.454,71 €**

Euskal Erakunde Publikoa	170.000,00 €
FEDER	44.908,94 €
Euskal Hirigune Elkargoa	5.000,00 €
Crédit Agricole Fundazioa	5.000,00 €
Baionako Herriko Etxea	3.500,00 €
Donibane Lohitzuneko Herriko Etxea	500,00 €
Hazparneko Herriko Etxea	500,00 €
Hendaiako Herriko Etxea	500,00 €
Angeluko Herriko Etxea	450,00 €
Azkaineko Herriko Etxea	400,00 €
Biarritzeko Herriko Etxea	400,00 €
Sarako Herriko Etxea	400,00 €
Ziburuko Herriko Etxea	360,00 €
Heletako Herriko Etxea	300,00 €
Uztaritzeko Herriko Etxea	250,00 €
Itsasuko Herriko Etxea	228,00 €
Aiziritzeko Herriko Etxea	200,00 €
Urruñako Herriko Etxea	200,00 €
Mauleko Herriko Etxea	190,00 €
Kanboko Herriko Etxea	180,00 €
Ahetzeko Herriko Etxea	150,00 €
Baigorriko Herriko Etxea	100,00 €
Bidarraiko Herriko Etxea	100,00 €
Donibane Garaziko Herriko Etxea	100,00 €
Ezpeletako Herriko Etxea	100,00 €
Izturitzeko Herriko Etxea	100,00 €
Mendibeko Herriko Etxea	100,00 €
Zuraideko Herriko Etxea	80,00 €
Donamartiriko Herriko Etxea	76,00 €
Donoztiriko Herriko Etxea	50,00 €
Larزابaleko Herriko Etxea	50,00 €
Mendiondoko Herriko Etxea	50,00 €
Behorlegiko Herriko Etxea	30,00 €

**Guztira 234.652,94 €**



## EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



[www.euskaltzaindia.eu](http://www.euskaltzaindia.eu)

### EGOITZA

#### BIZKAIA

Plaza Barria, 15  
48005 BILBO

+34 944 15 81 55  
+34 944 15 81 44

[info@euskaltzaindia.eu](mailto:info@euskaltzaindia.eu)

### IKERKETA ZENTROA

#### LUIS VILLASANTE

Tolare baserria. Almortza bidea, 6.  
20018 DONOSTIA

+34 943 42 80 50  
+34 943 42 83 65

[donostiaordez@euskaltzaindia.eu](mailto:donostiaordez@euskaltzaindia.eu)

### ORDEZKARITZAK

#### ARABA

Pedro Asua, 2. 2. solairua  
01008 GASTEIZ

+34 945 23 36 48

[gasteizordez@euskaltzaindia.eu](mailto:gasteizordez@euskaltzaindia.eu)

#### GIPUZKOA

Tolare baserria. Almortza bidea, 6.  
20018 DONOSTIA

+34 943 42 80 50  
+34 943 42 83 65

[donostiaordez@euskaltzaindia.eu](mailto:donostiaordez@euskaltzaindia.eu)

#### NAFARROA

Conde Oliveto, 2.2. solairua  
31002 IRUÑEA

+34 948 22 34 71

[nafordez@euskaltzaindia.eu](mailto:nafordez@euskaltzaindia.eu)

#### IPAR EUSKAL HERRIA

Gastelu Berria. Paul Bert plaza.  
64100 BAIONA

+33 (0) 559 25 64 26

[baionaordez@euskaltzaindia.eu](mailto:baionaordez@euskaltzaindia.eu)